



ISEI-IVEI
IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
TA IKERTZEKO ERAKUNDA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA




GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

TXOSTENA

**GAITASUN HANDIKO ETA
ERRENDIMENDU-MAILA
AURRERATUKO IKASLEEN
EGOERA EAE-KO
HEZKUNTZA-SISTEMAN**



ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Argitaratzailea: ISEI-IVEI

Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias, 9-3

48015 Bilbao

Tel.: 94 476 06 04

info@isei-ivei.net

www.isei-ivei.hezkuntza.net

2019ko ekaina

AURKIBIDEA

1. Sarrera	5
2. Galde-sorta	6
2.1. Lantzeko prozesua.....	6
2.2. Edukia	7
3. Parte-hartzearen azterketa	9
3.1. Galde-sortak betetzen lagundu duten pertsonak.....	10
4. Eraitzen azterketa	11
4.1. Gaitasun handiko ikasleak	11
4.1.1. Sailaren Orientabideak	11
4.1.2. Detekzioa, identifikazioa eta diagnostikoa	13
4.1.2.1. Detekzio sistematikoko jardunbideak.....	13
4.1.2.2. Ikastetxeetan detektatutako kasuak.....	15
4.1.2.3. Detekzioa egiteko modua	17
4.1.2.4. Diagnostikora iristeko modua.....	20
4.2. Gaitasun handiak eta errendimendu-maila aurreratua duten ikasleak.....	25
4.2.1. Esku-hartzea	25
4.2.1.1. Curriculuma aberasteari buruzko dokumentuaren erabilera	25
4.2.1.2. Esku-hartzearen xede izan diren ikasleak	27
4.2.1.3. Curriculuma aberasteko aukeratutako arloak	30
4.2.1.4. Programazio didaktikoetan landutako alderdiak.....	31
4.2.1.5. Programazio didaktikoetan planteatutako jarduerak.....	33
4.2.1.6. Gaitasun handiko edo errendimendu-maila aurreratuko ikasleekin esku hartu duten profesionalak.....	37
4.2.1.7. Prozedura eta ekintza metodologikoak.....	39
4.2.1.8. Errendimendu-maila aurreratuko ikasleen eta gainerako ikasleen arteko lankidetzak	41
4.2.1.9. Ikasle horien inplikazio aktiboa ikasteko prozesuan	43
4.2.1.10. Esku-hartzearekiko asebetetze-maila.....	47
4.2.2. Ebaluazioa	48
4.2.3. Prestakuntza	51
4.2.3.1. Gaitasun handiko ikasleei buruzko prestakuntza-orduak aurreko ikasturtean.....	51
4.2.3.2. Gaitasun handiko ikasleei buruzko prestakuntzaren agenteak	53
4.2.3.3. Gaitasun handiko ikasleen inguruko prestakuntza-premiak	56
4.2.3.4. Gaitasun handiko ikasleei buruzko prestakuntzaren lehentasuna ikastetxean	58
4.2.4. Aholkularitza eta lankidetzak	60
4.2.5. Gaitasun handiko ikasleen familiak	62
4.2.5.1. Gaitasun handiko ikasleen familiekin egindako ekintzak.....	62
4.2.5.2. Gaitasun handiko ikasleen familien ezaugarriak	64

4.2.6.	Ikastetxeen sentikortasuna errendimendu-maila aurreratuko eta gaitasun handiko ikasleei emandako erantzunaren aurrean	68
4.2.6.1.	Ikastetxeek errendimendu-maila aurreratuko eta gaitasun handiko ikasleen arretari ematen dioten lehentasuna	68
4.2.6.2.	Ikastetxeek errendimendu-maila aurreratuko eta gaitasun handiko ikasleen motibazio-mailari buruz duten ezagutza	70
4.2.6.3.	Ikastetxeek errendimendu-maila aurreratuko eta gaitasun handiko ikasleen asebetetze-mailari buruz duten ezagutza	72
4.2.6.4.	Hezkuntza Sistemaren hobekuntza-ekintzak	74
4.2.6.5.	Aniztasunaren Arretarako Plana: gaitasun handiak.....	74
5.	EAEEn diagnostikatutako gaitasun handiko ikasleak.....	77
5.1.	Heltze goiztiarra, talentua eta supergaitasuna duten EAEko ikasleak.....	77
5.2.	Ikasleen banaketa lurraldearen arabera.....	79
5.3.	Ikasleen banaketa hezkuntza-sarearen arabera	79
5.4.	Ikasleen banaketa ereduaren arabera	80
5.5.	Ikasleen banaketa hezkuntza-etaparen arabera.....	80
5.6.	Ikasleen banaketa mailaren arabera	82
5.7.	Ikasleen banaketa ISEKaren arabera	83
5.8.	Ikasleen banaketa sexuaren arabera	85
5.9.	Beste hezkuntza-etapa batzuetan diagnostikatutako eta eskolatutako ikasleak.....	85
6.	Ondorio orokorrak.....	88
6.1.	Parte-hartzearen azterketa	88
6.2.	Sailaren Orientabideak.....	88
6.3.	Detekzioa, identifikazioa eta diagnostikoa	88
6.4.	Esku-hartzea	89
6.5.	Ebaluazioa.....	90
6.6.	Prestakuntza	91
6.7.	Aholkularitza eta lankidetzatza	91
6.8.	Gaitasun handiko ikasleen familiak.....	92
6.9.	Ikastetxeen sentikortasuna errendimendu-maila aurreratuko eta gaitasun handiko ikasleei emandako erantzunaren aurrean	92
6.10.	EAEEn diagnostikatutako gaitasun handiko ikasleen analisia	92

I. Sarrera

Txosten hau, adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleentzako hezkuntza-arretarako 2019-2022 planaren diseinuaren esparruan egin da. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren asmoa da EAEko hezkuntza-sisteman gaitasun handiak eta errendimendu-maila aurreratua dituzten ikasleen egoera aztertzea.

Ikasle horien errealitatea ezagutzeko, galde-sorta bat landu zen, eta funts publikoekin finantzaturako sare publikoko zein itunpeko sareko EAEko ikastetxeetako zuzendari guztiei igorri zitzairen, bete zezaten. Galde-sorta betetzeko, ikastetxeek 2018ko abenduaren 10etik 21era bitarteko epea izan zuten.

Ikasle horien ikuspegi osatu bat izateko, hainbat hezkuntza-tarteko (Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko) zuzendariei bidali zitzairen galde-sorta.

Azken helburua, nolana ere, ikasle horiek gure hezkuntza-sisteman dituzten premiak detektatzea izan zen, eta hori kontuan hartzea diseinatutako plana egitean eta garatzean.

2. Galde-sorta

2.1. Lantzeko prozesua

Galde-sortaren helburuak eta hartzaileak adierazi ondoren, galde-sorta mota zehaztea eta lantzea izan zen hurrengo urratsa. Horretarako, helburu espezifikoak edo informazioa biltzeko eremuak xehatu ziren erreferentzia-esparru bat izateko, barnean hartu beharreko galderak laguntzeko asmoz:

- Adimen-gaitasun handiko ikasleen detekzioari, identifikazioari eta diagnostikoari buruzko datuak biltzea.
- Errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleekiko esku-hartzeari buruzko datuak eta jardunbideak biltzea.
- Generoak detekzioan eta esku-hartzean duen eragina ezagutzea.
- Zuzendariak detekzioari, identifikazioari eta esku-hartzeari dagokienez duten asebetetze-maila ebaluatzea.
- Ikastetxeek aniztasunaren arretari dagokionez dituzten ohiko jardunbideak ezagutzea: gaitasun handiak eta errendimendu-maila aurreratua, zuzendarien arabera.
- Gaitasun handietan berriki jasotako prestakuntza, beharko luketen prestakuntza mota eta prestakuntzaren lehentasuna ezagutzea.
- Zuzendariak adimen-gaitasun handiko ikasleentzako hezkuntza-arretako plana dagokionez dituzten aurreikuspenak ezagutzea.
- Gaitasun handiko seme-alabak dituzten familiekin sustatzen diren ekintzak eta zuzendaritzaren arabera ikastetxean familia horien bereizgarriak diren jarduketak ezagutzea.
- Hezkuntza-sistemak gaitasun handiko ikasleei ematen dien hezkuntza-erantzuna hobetzeko ekintzak eta ekarpenak biltzea.
- Zuzendaritzak errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleei emandako hezkuntza-erantzunarekin agertzen duen sentikortasun-maila ebaluatzea: arreta ikasle horiei emateko lehentasuna, eta ikasleek arlo guztietan agertutako motibazioaren eta asebetetze orokorraren ezagutza.

Azterlan honetan lortutako emaitzetatik abiatuta, Hezkuntza-arretarako Plana zehaztu ahal izango da, eta kontuan hartu bere garapenerako.

Galde-sortaren edukia zehazteko, honako bilera hauek egin ziren profesionalekin, hezkuntza-agintariekin eta ikasle horiei modu batean edo bestean lotutako erakundeekin:

- Sailburuordetzaren eta ISEI-IVEIren arteko bilera, lankidetzaproiektua, ikerketaren esparrua eta galde-sortaren helburuak zehazteko.
- Gaitasun handietan espezialista den Bizkaiko Hezkuntza Berriztatzeko lurraldeburuarekin egindako elkarrizketa.
- Ikastetxeetako zuzendari batzuek Ikuskaritza Nagusiko teknikari batekin sailaren detekzio-datuei buruz eta aniztasunaren arretaren eta, zehazki errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleen inguruko ebaluazio-esperientzia pilotu bati buruz egindako elkarrizketa.
- “Taldea Eragilearekin” egindako bilerak, adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleentzako hezkuntza-arretako plana zehazteko helburuarekin (Sailburuordetza, Berrikuntza Saila, ikuskaritza orokorra, ISEI-IVEIko teknikariak, unibertsitatea, familien elkarteak, gaitasun handiak dituen ikaslea, zentroen zuzendaritza eta aniztasunaren arretan –gaitasun handiak– esperientzia duten zentroak).
- Bi elkarrizketa pertsonal Alcagi eta Aupatuz elkarteekin Hezkuntza Sailean eta idatzizko elkarrizketa bat Alcavi elkartearekin (posta elektronikoko bidez).

Galde-sorta ikastetxeko zuzendaritzak bete behar zuen, eta, horretarako, hezkuntza-arloko beste profesional batzuen laguntza jaso zezakeen. Ikastetxeak bi etapa bazituen (Lehen Hezkuntza eta DBH, adibidez), 2 gutun iritsi zitzaizkion, bi estekarekin (bat etapa bakoitzerako). Zuzendaritzak etapa-koordinatzaile bati eskuordetu ziezaiokeen galde-sorta bat betetzeko zeregina. Galde-sorta online bete zen. ISEI-IVEIko metodo-taldeak etapa bakoitzerako sarrera bat eskaintzen zuen aplikazio informatiko bat diseinatu eta aktibatu zuen.

ISEI-IVEIk gakoak eta URL helbidea jakinarazi zituen, sarrerako, galde-sorta betetzeko eta ondoren datuak tratatzeko prozesua kudeatu zuen, eta prozesu osoaren konfidentzialtasuna ziurtatu zuen.

2.2. Edukia

Arestian deskribatutako lanketa-prozesuaren ondoren, 48 galderako galde-sorta bat osatu zen. Galdera horiek honako bi azpiatal hauetan zeuden antolatuta:

1. Gaitasun handiko ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzunean oinarritutako azpiatala, honako hauei buruzko informazioa biltzen zuena:
 - *Detekzioa eta identifikazioa.* Atal honetan, honako alderdi hauei buruzko galderak sartzen dira: Sailak gaitasun handiak dituzten ikasleak detektatzeko eta haiekin lan egiteko moduaren inguruan helarazitako orientabideei buruzko dokumentuaren ezagutza, detekzio sistematikoa eta horretarako protokolo baten erabilera, detekzioaren arduradunak eta bideratzaileak, guztira detektatuta dauden ikasleen kasuen kopurua, mailaren eta etaparen arabera (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa), detektatutako ikasleen artean dauden nesken kopurua, detektatzeko modua eta ikastetxeak diagnostikora iristeko egindako jarduketak. Gainera, ikastetxeak gaitasun handiko ikasleen detekzioari eta identifikazioari dagokienez duen asebetetze-maila adierazteko eskatzen da.
 - *Gaitasun handien inguruko prestakuntza eta aholkularitza.* Atal honetan, aurreko ikasturteko prestakuntza-denborari, erakunde prestatzaileei eta gaitasun handiko ikasleen inguruko prestakuntza-premiei buruzko galderak sartzen dira. Gainera, etorkizuneko prestakuntza horren lehentasunari buruz galdetzen da, baita gaitasun handiko ikasleen premiei hezkuntza-erantzuna emateko laguntza nori eskatzen zaion ere.
 - *Familiak.* Atal honetan, ikastetxean gaitasun handiko seme-alabak dituzten familiekin honako hauen inguruan sustatzen diren ekintzak sartzen dira: familien eskarien bilketa, familientzako orientazioa, familiek esku-hartze eta ekintza-plana ezagutzea, familiei zuzendutako prestakuntza, haiekiko esku-hartzea eta “beste batzuk”. “Beste batzuk” erantzunez gero, galdera irekia planteatzen da: zeintzuk? Halaber, gaitasun handiak dituzten eta ikastetxean eskolatuta dauden ikasleen familien ezaugarriei buruz galdetzen da.
2. Beste hiru ataletan, kontuan hartu behar dira, gaitasun handiak dituzten ikasleez gain, ikasteko gaitasun handia duten eta, oro har, konpetentzia guztietan edo batzuetan oso emaitza onak lortzen dituzten beste ikasle bikain horiek (errendimendu-maila aurreratua duten ikasleak). Kasu horretan, bildutako informazioa honako alderdi hauei buruzkoa da:
 - *Esku-hartzea.* Atal honetan, honako hauei buruzko galderak sartzen dira: Sailaren “Curriculuma aberastea” dokumentuaren inguruko ezagutza (gaitasun handiko ikasleekin lan egiteko modua); guztira zenbat ikaslerekin esku hartu den aurreko ikasturtetik gaur egun arte, mailaren eta etaparen arabera; detektatutako ikasleen artean zenbat diren neskak; zer arlotan egin zen curriculum-aberastea; programazio didaktikoak eta curriculum-aberastea (sormena, ekimen pertsonala, ikasteko autonomia, teknologia digitalaren erabilera,

komunikazioa, interakzio soziala, emozioen kanalizazioa, pertseberantzia eta ahalegina); sakontze-jarduerak, erronkak; ezarri diren prozedurak eta ekintza metodologikoak; ikasle horiekin esku hartzen duten pertsonak; ikastetxeko jarduketak ikasleek gainerakoekin lankidetzan jardun dezaten eta beren ikasteko prozesuan inplikazio aktiboa izan dezaten. Atal honen barruan, ikastetxeetan egiten diren eta galde-sortan agertzen ez diren “beste jardunbide batzuk” ezagutarazteko lau galdera daude irekita. Gainera, konpetentziak garatzean errendimendu-maila aurreratuak lortzeko aukera duten ikasleekiko esku-hartzeari dagokionez ikastetxeak duen asebetetze-maila eskatzen da.

- *Ebaluazioa.* Atal honetan, ebaluazio-prozesuei lotutako zazpi alderdiri buruz galdetzen da: ebaluazio-saioetan ikasle horiei eskainitako tartea; Ebaluazio Diagnostikoa; ebaluazioaren egokitzapena hainbat arlotan; landutako alderdietara egokitutako proben diseinua; hurrengo ziklora igarotzeko prozesuari eskainitako arreta eta ebaluazioaren malgutzea.
- *Errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzunarekiko sentsibilitatea.* Atal honen barruan, honako hauei buruzko bost galdera daude: ikasle horiei eskaini beharreko arretaren lehentasuna, ikasleen motibazioaren eta asebetetze orokorraren ezagutza arlo guztietan, hezkuntza-sisteman ikasleei eman beharreko erantzuna hobetzeko egin daitekeena eta Aniztasunaren Arretarako Planaren aurreikuspenak (errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleei dagokienez zehazki).


Galde-sortaren amaieran, betetzen lagundu duen profesionalari eta ikastetxeak parte hartzen duen proiektu eta programei buruz galdetzen da.

Galdera askotan, erantzun itxi bat (Bai ala Ez) eskatzen duten hainbat atal daude. Beste galdera batzuetan, erantzuteko hainbat aukera daude. Beste batzuk, berriz, ikasleei emandako hezkuntza-erantzunaren inguruko asebetetze-mailari buruzkoak dira (Batere ez-Gutxi-Nahikoa-Asko). Gainera, arestian adierazitakoak bezalako 10 galdera irekian, erantzuteko aukeretan jasota ez dauden hezkuntza-jardunbideak eta ekintzak aipatu eta deskriba ditzakete ikastetxeek.


3. Parte-hartzearen azterketa

Ikasleak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapetan eskolatzen dituzten 553 ikastetxeetatik, 484k (% 90,8k) bete dute galde-sorta. DBHn eta Batxilergoan, berriz, 332 ikastetxeetatik 291k bete dute (% 87,7k). Ikastetxe guztiak kontuan hartuta, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien % 4,3 eta DBHko eta Batxilergoko % 3,3 galde-sorta betetzen hasi dira, baina ez dute amaitu.

3.a . grafikoa: Parte hartu duten zentroyen ehunekoa, etaparen arabera.



3.b. grafikoa: Parte hartu duten zentroyen ehunekoa, etaparen eta hezkuntza-sarearen arabera.



Parte hartu duten sare publikoko ikastetxeen ehunekoa itunpeko sareenak baino handiagoa izan da (sare publikoko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien % 6,4 eta sare bereko DBHko eta Batxilergoko % 12,7).

3.1. Galde-sortak betetzen lagundu duten pertsonak


Galde-sortan, honako galdera hau egin zen:

Adierazi, mesedez, galdetegi hau betetzen zurekin lankidetzan batez ere nor aritu den:

Zuzendari gehienek erantzun dute aholkularien eta orientatzaileen laguntza jaso dutela galde-sorta betetzeko (Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien % 55,4k eta DBHko eta Batxilergoko zuzendarien % 67,9k). Halaber, adierazi dute Ikasketa Buruek (kasuen % 47,5etan Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 42,5etan DBHn eta Batxilergoan) eta beste profesional batzuek (kasuen % 22tan baino gutxiagotan etapa guztietan) lagundu dutela.

Zuzendariari galde-sortak betetzen lagundu dieten pertsonak antzeko moduan sailkatu dira bi etapetan, ehunekorik handienetik txikienera.

3.1.a. grafikoa: Galdetegi hau betetzen zurekin lankidetzan batez ere nor aritu den, etaparen arabera.



4. Emaitzen azterketa

4.1. Gaitasun handiko ikasleak

Atal honetan, gaitasun handiko ikasleak baino kontuan ez hartzeko eskatu zitzaizen ikastetxeei.

4.1.1. Sailaren Orientabideak


Galde-sortan, Hezkuntza Sailak gaitasun handiko ikasleei buruz helarazitako Orientabideak ezagutzen zituzten ala ez galdetu zitzaizen ikastetxeei. Eusko Jaurlaritzak egindako "Orientabideak" dokumentua zabaltzeko esteka jarri zen.

Ezagutzen al dituzue gaitasun handiak dituzten ikasleak detektatzeari edo lantzeari buruz Hezkuntza Sailak emandako jarraibideak?

Lurraldearen arabera

Gipuzkoako zuzendariak dira Hezkuntza Sailak gaitasun handiko ikasleak detektatzeko eta haiekin lan egiteko moduari buruz helarazitako orientabideak ezagutzen dituztela dioten artean ehunekorik handiena dutenak. Gutxien ezagutzen dituzten ikastetxeak, berriz, Arabakoak dira.

4.1.1.a. grafikoa: Hezkuntza Sailak gaitasun handiko ikasleak detektatzeko edo haiekin lan egiteko moduari buruz helarazitako Orientabideak ezagutzen dituzten ikastetxeen ehunekoa, etaparen eta lurraldearen arabera.




Bestalde, Hezkuntza Sailak ikasle horiei buruz helarazitako Orientabideak ezagutzen dituztela adierazi duten Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien ehunekoa DBHko eta Batxilergoko zuzendariena baino handiagoa da hiru lurraldeetan.

Hezkuntza-sarearen arabera

Hezkuntza Sailak gaitasun handiko ikasleei buruz helarazitako Orientabideak ezagutzen dituztela dioten zuzendarien ehunekoa handiagoa da itunpeko sarean publikoan baino. Bestalde, orientabide horiek ezagutzen dituztela adierazi duten Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien ehunekoa DBHko eta Batxilergoko zuzendariena baino handiagoa da bi sareetan.


4.1.1.b. grafikoa: Hezkuntza Sailak gaitasun handiko ikasleak detektatzeko edo haiekin lan egiteko moduari buruz helarazitako Orientabideak ezagutzen dituzten ikastetxeen ehunekoak, etaparen eta hezkuntza-sarearen arabera.



Etaparen arabera

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien % 78k baino gehixeagok eta DBHko eta Batxilergoko zuzendarien ia % 71k adierazi dute ezagutzen dituztela Hezkuntza Sailak gaitasun handiko ikasleak detektatzeko edo haiekin lan egiteko moduari buruz helarazitako Orientabideak. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, bestalde, DBHn eta Batxilergoan baino neurri handiagoan ezagutzen dituzte Orientabide horiek (portzentajezko 7,2 puntu gehiago).

4.1.1.c. grafikoa: Hezkuntza Sailak gaitasun handiko ikasleak detektatzeko edo haiekin lan egiteko moduari buruz helarazitako Orientabideak ezagutzen dituzten ikastetxeen ehunekoak, etaparen arabera.



4.1.2. Detekzioa, identifikazioa eta diagnostikoa


4.1.2.1. Detekzio sistematikoko jardunbideak

Galde-sortan, gaitasun handiko ikasleen detekzio sistematikoari buruz galdetu zitzairen ikastetxeei:

Konpetentzien garapenean goiztiartasuna eta gaitasun handiak dituzten ikasleak modu sistematikoan detektatzen al dira?

Lurraldearen arabera


Hiru lurraldeetako Haur Hezkuntzako zuzendari gehienek erantzun dute gaitasun handiko ikasleen detekzio sistematikoa tutoreen ardura dela. Gainerako etapetan, berriz, hiru lurraldeetako ikastetxe gehienek erantzun dute ardura hori arloko irakasleena dela.



Bestalde, etapa guztietan eta hiru lurraldeetan, zuzendarien ehunekorik txikienak adierazten du ikasle horiek detektatzeko protokolo bat duela.

Hezkuntza-sarearen arabera

Haur Hezkuntzan, erantzunen ehunekoak handiagoak izan dira sare publikoan itunpeko sarean baino, aukera guztietan. DBHn eta Batxilergoan, berriz, itunpeko sarearen ehunekoak sare publikokoak baino handiagoak izan dira, Batxilergoan izan ezik (“arloko irakasleen ardura da” aukeran). Lehen Hezkuntzan, berriz, sare publikoko ehunekoen eta itunpeko ehunekoen arteko aldeek ez diote gainerako hiru hezkuntza-tartekoetakoa bezain egonkorra den eredu bati jarraitu.



Etaparen arabera


Haur Hezkuntzako zuzendarien erdiek baino gehiagok (% 67,2k) eta Batxilergoko zuzendarien erdiek baino gehixeagok (% 50,2k) adierazi dute protokolo bat dutela gaitasun handiko ikasleak detektatzeko. Protokolo bat dutela adierazi duten Lehen Hezkuntzako eta DBHko zuzendariak, berriz, ez dira % 33ra iristen. Nolanahi ere, ehunekorik txikiena DBHkoa da (% 25,4).

Ikasle horiek detektatzeko ardura dutenei dagokienez, Haur Hezkuntzako zuzendari gehienek adierazi dute tutoreen ardura dela (% 86,5). Gainerako etapetan, ardura hori arloko irakasleena

dela adierazi duten zuzendarien ehunekoa tutoreena dela adierazi duten zuzendarien ehunekoa baino handiagoa da (Haur Hezkuntzan % 84,1 eta % 58,6, hurrenez hurren, DBHn % 62,1 eta % 53,3, eta Batxilergoan % 74 eta % 66,7).

Haur Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien erdiek baino gehiagok (% 70k, % 66,3k eta % 61,4k, hurrenez hurren) adierazi dute aholkulariak edo orientatzaileak gaitasun handiko ikasleen detekzioa bideratzen dutela. DBHn, berriz, ehunekoa ez da erdira iristen (% 47,3).

4.1.2.1.i. grafikoa: Ikastetxeek gaitasun handiko ikasleen detekzio sistematikorako egiten dituzten jardunbideen ehunekoa, etaparen arabera.



4.1.2.2. Ikastetxeetan detektatutako kasuak


Galde-sortan, aurreko ikasturtean detektatutako kasuen kopuruari buruz galdetu zitzairen ikastetxeei:

2017-2018ko ikasturtetik hona, goiztiartasuna, gaitasun handiak dituzten ikasleak zenbat kasu izan dituzue eta zer ikasmaitan detektatu dira?

Hezkuntza-sarearen arabera

Itunpeko sareko ikastetxeetan sare publikoetan baino kasu gehiago detektatu dira. Bi sareen arteko alderik txikiena Haur Hezkuntzan dago (36 ikasle), eta alderik handiena, berriz, DBHn (401 ikasle).


4.1.2.2.a. grafikoa: Ikastetxeek detektatutako ikasleen kopurua, etaparen eta hezkuntza-sarearen arabera.



Etaparen arabera

Kasu kopururik handiena detektatu diren etapak Lehen Hezkuntza (1.023 ikasle) eta DBH (647) dira.



4.1.2.2.b. grafikoa: Ikastetxeek 2017/2018 ikasturtean detektatu dituzten gaitasun handiko ikasleen kopurua eta ehunekoa, etaparen arabera.



Sexuaren arabera


Etapa guztietan, detektatutako mutilen ehunekoa nekeena baino handiagoa da.

Batxilergoan, detektatu diren mutilen ehunekoaren eta nesken ehunekoaren arteko aldea portzentajezko puntu batekoa da. Gainerako hiru etapetan, berriz, aldeak portzentajezko 26 puntu ingurukoak dira, batez beste.



Ikastetxeen arabera

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien eta DBHko eta Batxilergoko zuzendarien erdiek baino gehiagok (% 55,4k eta % 50,9k, hurrenez hurren) adierazi dute gaitasun handiko ikasleak dituztela.



4.1.2.3. Detekzioa egiteko modua

Galde-sortan, gaitasun handiko ikasleen kasuak nola detektatu dituzten esateko eskatu zaie ikastetxeei.


Nola burutzen duzue detekzioa ahalezko kasuak?

Lurraldearen arabera

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako zuzendariak, % 33,8tik %40,1era, adierazi dute kasuak lankidetzan detektatzen direla ikastetxean. Hori da hiru lurraldeetako jardunbiderik ohikoena etapa horietan. Nolanahi ere, ehunekorik handiena Gipuzkoakoa da.


HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

4.1.2.3.a. grafikoa: Ikastetxeetan kasuak detektatzeko egindako jardunbideen ehunekoa, lurraldearen arabera.



DBH ETA BATXILERGOA

4.1.2.3.b. grafikoa: Ikastetxeetan kasuak detektatzeko egindako jardunbideen ehunekoa, lurraldearen arabera.



Bestalde, DBHn eta Batxilergoan, zuzendariak, % 28,2tik %34ra, adierazi dute orientabideak eta tresnak eskatzen dizkiotela Berritzeguneko aholkulariari. Hori da hiru lurraldeetako jardunbiderik ohikoena etapa horietan. Nolanahi ere, ehunekorik handiena Bizkaikoa da.


Hiru lurraldeetako zuzendariak, % 2,5tik %6,2ra, adierazi dute ez dutela ezer berezirik egiten, erraz detektatzen diren kasuak baitira. Erantzun-aukera horrek izan du ehunekorik txikiena Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Hezkuntza-sarearen arabera

Ikasleak detektatzeko, sare publikoko zuzendariak, oro har, itunpeko sareko zuzendariak baino jardunbide-ehuneko handiagoa egiten dute.


HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

4.1.2.3.c. grafikoa: Ikastetxeetan kasuak detektatzeko egindako jardunbideen ehunekoa, hezkuntza-sarearen arabera.



DBH ETA BATXILERGOA

4.1.2.3.d. grafikoa: Ikastetxeetan kasuak detektatzeko egindako jardunbideen ehunekoa, hezkuntza-sarearen arabera.



Bi salbuespen daude:

- Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, itunpeko sareko ehunekoa sare publikokoa baino handiagoa da aholkulariak emandako tresnak erabiltzean datzan detekzio-jardunbidearen kasuan (% 16 sare publikoan eta % 21,5 itunpeko sarean).


- DBHn eta Batxilergoan, itunpeko sareko ehunekoa sare publikokoa baino handiagoa da bi jardunbidetan: detekzioa ikastetxearekin lankidetzan egitea (% 23 sare publikoan eta % 35 itunpeko sarean) eta ikastetxeko orientatzaileak emandako tresnak erabiltzea (% 10,7 eta % 18,4, hurrenez hurren).

Etaparen arabera

Nahiz eta detektatzeko jardunbideetako artean ezein ez da % 40ra iristen, ohikoenak honako hauek dira:

- Ikasleak lankidetzan detektatzen dira ikastetxean: portzentajezko 6,2 puntuko aldea dago Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etaparen alde.
- Orientabideak eta tresnak eskatzen dizkiogu Berritzeguneko aholkulariari: portzentajezko 5,5 puntuko aldea dago DBHko eta Batxilergoko etaparen alde.
- Ikastetxeko aholkulari edo orientatzaileek emandako tresnak erabiltzen ditugu: bi etapen arteko aldea ez da portzentajezko 3 puntura iristen, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etaparen alde.

4.1.2.3.e. grafikoa: Kasuak detektatzeko jardunbideen ehunekoa, etaparen arabera.



Etaparen guztietan, ehunekorik txikienak izan dituztenak honako hauek dira:

- Familiak detektatzen ditu: erantzun-aukera honetan, portzentajezko 6,2 puntuko aldea dago DBHko eta Batxilergoko etaparen alde.
- Tutoreak balorazio bat egiten du emaitza akademikoetan oinarrituta (% 6,7tik % 9,2ra bitarte).
- Ez dugu ezer berezirik egiten; erraz detektatzen diren kasuak izan ohi dira (% 2,6tik % 4,9ra bitarte).

4.1.2.4. Diagnostikora iristeko modua

Galde-sortan, kasuak detektatu ondoren nola iristen diren diagnostikora galdetu zaie ikastetxeei:

Detekzioa egin ondoren, zer egiten du ikastetxeak kasuaren diagnostikora iristeko?


Lurraldearen arabera

Hiru lurraldeetako zuzendari gehienek adierazi dute gaitasun handiko ikasleen diagnostikora iristeko familiari baimena eskatzen diotela Berritzeguneko aholkulariari balorazio bat eta diagnostiko psikopedagogiko bat eskatzeko (% 83tik % 89,5era bitarte Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 71,8tik % 74,7ra bitarte DBHn eta Batxilergoan; ehunekorik handiena Bizkaikoa izan da).

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, hiru lurraldeetako ikastetxeen erdiek baino gutxiagok (% 32,4tik %41,2ra) adierazi dute familiak emandako diagnostikoa jasotzen duela ikastetxeak. Bestalde, aukera eta erantzun horretan, DBHn eta Batxilergoan Arabako eta Gipuzkoako ehunekoa % 50 baino handixeagoa da (% 53,8 eta % 52, hurrenez hurren), eta Bizkaikoa, berriz, ez da % 50era iristen (% 41,85).


HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

4.1.2.4.a. grafikoa: Ikastetxeek diagnostikora iristeko egindako jardunbideen ehunekoa, lurraldearen arabera.



DBH ETA BATXILERGOA

4.1.2.4.b. grafikoa: Ikastetxeek diagnostikora iristeko egindako jardunbideen ehunekoa, lurraldearen arabera.




Arabako DBHko eta Batxilergoko zuzendarien ehunekoa da handiena ezohiko neurriak behar badira balorazioa eta diagnostiko psikopedagogikoa eskatzen dituztela adierazi dutenen artean (% 46,2).

Hezkuntza-sarearen arabera

Bi sareetan, balorazio psikopedagogikoaren eskaera da ikastetxeen jardunbiderik ohikoena diagnostikora iristeko (% 70,5etik % 90,3ra bitarte).


HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

4.1.2.4.c. grafikoa: Ikastetxeek diagnostikora iristeko egindako jardunbideen ehunekoa, hezkuntza-sarearen arabera.



DBH ETA BATXILERGOA

4.1.2.4.d. grafikoa: Ikastetxeek diagnostikora iristeko egindako jardunbideen ehunekoa, hezkuntza-sarearen arabera.




Oro har, itunpeko sareko zuzendariak sare publikoek baino neurri handiagoan adierazi dute jardunbideak egiten dituztela diagnostikora iristeko. Salbuespen bakarra sare publikoko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendariena izan da, itunpeko sareko zuzendariak baino neurri handiagoan adierazi baitute balorazio psikopedagogikoa eskatzen diotela Berritzeguneetako aholkulariei (% 90,3 eta % 79,5, hurrenez hurren).

Itunpeko sareko zuzendarien % 50ek baino gehixeagok familiak emandako txosten diagnostikoa jasotzen dute.

Etaparen arabera

Eta guztietan, diagnostikora iristeko jardunbiderik ohikoena familiaren baimenarekin Berritzeguneko aholkulariari balorazio bat eta diagnostiko psikopedagogiko bat eskatzea da. Portzentajezko 12,3 puntuko aldea dago Haur Hezkuntzaren eta Lehen Hezkuntzaren (% 86,3) eta DBHren eta Batxilergoaren (% 74) artean.

4.1.2.4.e. grafikoa: Ikastetxeek diagnostikora iristeko egindako jardunbideen ehunekoa, etaparen arabera.



Familiak emandako txosten diagnostikoa jasotzen dutela adierazi dutenen ehunekoa handiagoa da DBHn eta Batxilergoan Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan baino (% 47 eta % 39,7, hurrenez hurren).

Azkenik, etapetako ehunekorik txikiena, ezohiko neurriak behar badira, familiaren baimenarekin balorazioa eta diagnostiko psikopedagogikoa eskatzeak izan du, eta antzekoa izan da etapa guztietan (% 34,6 inguru).

4.1.2.5. Detekzioarekiko asebetetze-maila


Galde-sortan, gaitasun handiko ikasleen detekzioari eta identifikazioari dagokionez duten asebetetze-mailari buruz galdetu zaie ikastetxeei.

Zein da zure asebetetze maila gaitasun handiak dituzten ikasleak detektatzeari eta identifikatzeari dagokionez, ikastetxean?

Lurraldearen arabera

Arabako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien erdiek baino gehixeagok (% 54,1ek) adierazi dute nahiko gustura daudela gaitasun handiko ikasleen detekzioarekin eta identifikazioarekin. Gainerako lurralde eta etapetan, ez dira % 50era iristen nahiko gustura daudela adierazi duten zuzendariak, ehunekorik handiena duen aukera bada ere.


Bestalde, ez dira % 10era iristen oso gustura daudela adierazi duten hiru lurraldeetako zuzendariak (% 2,6tik % 8ra bitarte).



Gustura ez daudela adierazi duten zuzendarien ehunekorik handiena Arabakoa izan da (% 12,2 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 23,1 DBHn eta Batxilergoan).

Hezkuntza-sarearen arabera


Sare publikoko zuzendarien asebetetzearen ehunekoak eta itunpekoen asebetetzearen ehunekoak desberdinak dira etaparen arabera. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, oso, nahiko edo ez oso gustura daudela adierazi duten sare publikoko zuzendarien ehunekoak (% 51,2 eta % 7,5, hurrenez hurren) itunpekoen ehunekoak (% 47,7 eta % 6,4, hurrenez hurren) baino handiagoak dira. DBHn eta Batxilergoan, berriz, alderantziz gertatzen da (% 50,3 eta % 4,3 itunpekoan, eta % 36,9 eta % 3,3 publikoan).



Etaparen arabera

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien % 57k eta DBHko eta Batxilergoko % 48,5ek nahiko edo oso gustura daudela adierazi dute. Beraz, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendariak gaitasun handiko ikasleen detekzioarekin eta identifikazioarekin duten asebetetze-maila DBHko eta Batxilergoko zuzendariena baino handiagoa da.

4.1.2.5.e. grafikoa: Ikastetxeek gaitasun handiko ikasleen detekzioari eta identifikazioari dagokienez duten asebetetzearen ehunekoa, etaparen arabera.



4.2. Gaitasun handiak eta errendimendu-maila aurreratua duten ikasleak

4.2.1. Esku-hartzea

4.2.1.1. Curriculumuma aberasteari buruzko dokumentuaren erabilera

Galde-sortan, Eusko Jaurlaritzak egindako "Curriculumuma aberastea" dokumentua zabaltzeko esteka jarri zen eta dokumentuaren erabileraren inguruko honako galdera hau egin zen:


Erabili al duzue gaitasun handiak dituzten ikasleekin lan egiteko moduari buruz Hezkuntza Sailak egindako "Curriculumuma aberastea" dokumentua?

Lurraldearen arabera

EAEko Hezkuntza Sailak landutako "Curriculumuma aberastea" dokumentua erabili dutela adierazi duten hiru lurraldeetako ikastetxeen ehunekoa ez da % 43ra iristen.

Dokumentuaren erabileraren ehunekorik txikienak Bizkaiko eta Gipuzkoako DBHko eta Batxilergoko zuzendarienak izan dira (% 32,2 eta % 31,6, hurrenez hurren).

4.2.1.1.a. grafikoa: Hezkuntza Sailak "Curriculuma aberastea" dokumentua erabili duten ikastetxeen ehunekoa, etaparen eta lurraldearen arabera.




Hezkuntza-sarearen arabera

Curriculuma aberasteari buruzko dokumentua erabili dutela adierazi duten itunpeko sareko ikastetxeen ehunekoa sare publikoko ikastetxeena baino handiagoa izan da.

Dokumentu hori erabili dutela adierazi duten zuzendarien ehunekorik handiena itunpeko sareko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendariena izan da (% 50,3), eta txikiena, berriz, DBHko eta Batxilergoko sare publikoko zuzendariena (% 19,3).


4.2.1.1.b. grafikoa: Hezkuntza Sailak "Curriculuma aberastea" dokumentua erabili duten ikastetxeen ehunekoa, etaparen eta hezkuntza-sarearen arabera.



Etaparen arabera

Zuzendarien % 42k baino gutxiagok adierazi dute EAEko Hezkuntza Sailak landutako "Curriculuma aberastea" dokumentua erabili dutela.

4.2.1.1.c. grafikoa: Hezkuntza Sailak "Curriculumum aberastea" dokumentua erabili duten ikastetxeen ehunekoa, etaparen arabera.



Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendariak DBHko eta Batxilergoko zuzendariak baino neurri handiagoan adierazi dute erabili dutela dokumentua (portzentajezko 8,1 puntu gehiago).

4.2.1.2. Esku-hartzearen xede izan diren ikasleak

Galde-sortan, hezkuntza-neurri espezifikoaren bidez (hala nola curriculumum aberasteko neurriaren bidez) egindako esku-hartzearen xede izan diren ikasleen kopuruari buruz galdetu zen:

2017-2018ko ikasturtetik hona, zenbat ikasleekin egin zenuten esku-hartzea gelan hezkuntza-neurri espezifikoekin? Honako hau: Curriculumum aberastea.

Halaber, honako galdera hau egin zen:

Zenbat dira?

Guztira:

Neskak:


Hezkuntza-sarearen arabera

Oro har, errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleekin egindako esku-hartzearen ehunekoa handiagoa izan da itunpeko sarean sare publikoan baino.

Sare publikoko esku-hartzearen ehunekoaren eta itunpeko sareko esku-hartzearen ehunekoaren arteko alderik handienak DBHn eta Batxilergoan agertu dira (portzentajezko 55,2 eta 56,4 puntu, hurrenez hurren, itunpeko sarearen alde).

Haur Hezkuntzan, bi sareetako ehunekoak oso antzekoak dira.

4.2.1.2.a. grafikoa: 2017-2018 ikasturtean ikastetxeek ikasgeletan esku-hartzearen bidez hezkuntza-neurri espezifikoak jaso dituzten ikasleen kopurua eta ehunekoa, hezkuntza-sarearen arabera.




Etaparen arabera

Ikastetxeen esku-hartzearen bidez hezkuntza-neurri espezifikoak (hala nola curriculumak aberastea) jaso dituzten ikasleen ehunekoa oso txikia izan da (ez da % 1 era iritsi ezein etapatan).

Ikasleen ehunekorik handienarekin esku hartu duten zuzendariak Lehen Hezkuntzakoak izan dira (etapa horretan eskolatutako ikasleen ia % 1). Ehunekorik txikienak, berriz, Haur Hezkuntzako eta Batxilergoko zuzendarienak dira (hezkuntza-tartea bakoitzean eskolatutako ikasleen % 0,42 eta % 0,48, hurrenez hurren).

4.2.1.2.b. grafikoa: 2017-2018 ikasturtean ikastetxeek ikasgeletan esku-hartzearen bidez hezkuntza-neurri espezifikoak jaso dituzten ikasleen kopurua eta ehunekoa, etaparen arabera.




Hala ere, ikastetxeen esku-hartzearen xede izan diren ikasleen ehunekoa eta detektatu dituzten ikasleena alderatuz gero ikus daitekeenez, lau etapetako hirutan detektatutakoetan baino kasu gehiagotan esku hartu da (Haur Hezkuntzan 3 ikasle gehiago, Lehen Hezkuntzan 262 eta DBHn 24). Horren arrazoia honako hau izan daiteke: ikastetxei gaitasun handiko ikasleen detekzioari buruz galdetu zaie, baina esku-hartzeari lotutako gaietan errendimendu-maila aurreratua duten ikasleak ere kontuan hartzeko eskatu zaie. Batxilergoan, berriz, detektatutakoekin baino 63 ikasle gutxiagorekin esku hartu da.

Sexuaren arabera

Ikastetxeek gaitasun handiko mutilak baino neska gutxiago detektatu dituzte, eta, era berean, neska gutxiagorekin esku hartu dute.

Esku-hartzearen xede izan diren mutilen eta nesken arteko aldeak handiagoak izan dira Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan (portzentajezko 7,8 eta 16,2 puntu, hurrenez hurren) DBHn eta Batxilergoan (portzentajezko 1 eta 0,6 puntu, hurrenez hurren) baino. Azken kasu horretan, ikus daitekeenez, zifrak parekatuta daude ia.

4.2.1.2.c. grafikoa: Esku-hartzearen ehunekoa, sexuaren arabera.



Gainera, aztertutako lau hezkuntza-tartetan, detektatutakoekin baino neska gehiagorekin esku hartu da, Batxilergoan detekzioaren eta identifikazioaren zifrak ia berdinak izan badira ere.


Haur Hezkuntzan, ikastetxeek detektatu dituzten neskak % 37,9 izan dira, eta esku-hartzearen xede izan diren neskak, berriz, % 46,1. Lehen Hezkuntzan, detektatutako neskak % 35,2 izan dira, eta esku-hartzearen xede izan direnak, berriz, % 41,9. DBHn, ikastetxeek detektatutako neskak % 37,4 izan dira, eta esku-hartzearen xede izan direnak, berriz, % 49,5. Azkenik, Batxilergoan, detektatutako neskak % 49,5 izan dira, eta esku-hartzearen xede izan direnak, berriz, % 49,7.

Alde horien arrazoa honako hau izan daiteke: detekzioaren kasuan, gaitasun handiko ikasleei buruz baino ez zaie galdetu ikastetxeei, eta esku-hartzearen kasuan, berriz, errendimendu-maila aurreratuko ikasleei buruz ere galdetu zaie.

Ikastetxeen arabera

2017-2018ko ikasturtetik gaitasun handiko ikasleekin esku hartu ez dutela adierazi duten zuzendarien ehunekoa esku hartu dutela adierazi dutenena baino handiagoa izan da.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien % 46,5ek eta DBHko eta Batxilergoko zuzendarien % 36,1ek adierazi dute ikasle horiekin esku hartu dutela (portzentajezko 10,4 puntuko aldea).




4.2.1.3. Curriculumua aberasteko aukeratutako arloak

Galde-sortan, ikastetxeek curriculumua aberasteko aukeratu zituzten arloei buruzko honako galdera hau egin zen:

Zer arlotan aberastu zen curriculumua gaitasun handiak dituzten ikasleekin?

Etaparen arabera

Curriculumua aberasteko gehien erabilitako arloa Matematika da (% 47,6 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 35,4 DBHn eta Batxilergoan).



Haur Hezkuntzan eta Lehen hezkuntzan, Matematikaz gain, curriculumua aberastu duten zuzendarien % 27k baino gehiagok honako arlo hauetan aberastu dute: hizkuntzak (% 38,5), Natur Zientziak (% 28,6) eta Gizarte Zientziak (% 27,5).

DBHn eta Batxilergoan, Matematikaz gain, curriculumua aberastu duten zuzendarien % 20 inguruk baino gehiagok honako arlo hauetan aberastu dute: Atzerriko hizkuntzak (% 21,1), Fisika eta Kimika (% 20), Euskara (% 20) eta Biologia eta Geologia (% 19,6).


4.2.1.4. Programazio didaktikoetan landutako alderdiak

Galde-sortan, programazio didaktikoei buruzko honako galdera hau egin zen:

Programazio didaktikoetan, zein aspektu lantzen duzue curriculuma aberasteko?

Lurraldearen arabera

Ikastetxeek curriculuma aberasteko programazio didaktikoetan landutako ia alderdi guztietan, ehunekorik handienak agertu dituen lurraldea Araba da.




Hiru lurraldeetako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendariak, % 52,4tik 75,3ra, adierazi dute beren programazioetan curriculuma aberasteko ia alderdi guztiak landu dituztela. Ehuneko horien azpitik, honako hauek baino ez daude: teknologia digitalaren erabilera Araban (% 49,3), eta “beste batzuk” (% 9,6tik % 11,4ra bitarte hiru lurraldeetan).

Hiru lurraldeetako DBHko eta Batxilergoko zuzendariak, % 51,3tik %76,9ra, adierazi dute beren programazioetan curriculuma aberasteko ia alderdi guztiak landu dituztela. Ehuneko horien azpitik, honako alderdi hauek daude: emozioak bideratzea (Bizkaiko eta Gipuzkoako zuzendarien % 44,8 eta % 38,8, hurrenez hurren), pertseberantzia eta ahaleginak (Gipuzkoako zuzendarien % 48) eta “beste batzuk” (% 7tik %15,4ra hiru lurraldeetan).

Hezkuntza-sarearen arabera

Programazio didaktikoetan curriculuma aberasteko landutako alderdiei buruz erantzuteko aukeretan, itunpeko sareko zuzendarien ehunekoak sare publikokoak baino handiagoak izan dira. Salbuespen bakarra Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza agertu da, “beste batzuk” aukeran.




Etaparen arabera

Oro har, programazio didaktikoetan curriculuma aberasteko landutako alderdiei buruz erantzuteko aukeretan, ehunekoak handiagoak izan dira Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan DBHn eta Batxilergoan baino.

Alderdirik landuenak honako hauek izan dira: autonomia ikasten-prozesuan (%69,9 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 63,9 DBHn eta Batxilergoan), sozio-interakzioa eta lankidetzatza Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan (% 68,8) eta ekimen pertsonala DBHn eta Batxilergoan (% 60,4).

4.2.1.4.e. grafikoa: Ikastetxeek programazio didaktikoetan curriculuma aberasteko landutako alderdien ehunekoak, etaparen arabera.



Galde-sortan “beste batzuk” erantzun duten ikastetxeek zein adierazteko aukera izan dute.

Beste batzuk markatzen badituzu, zeintzuk?

Ikastetxeetako zuzendariak adierazitakoaren arabera, honako beste alderdi hauek landu dira programazio didaktikoetan:

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza

- Pentsatzen ikastea, asertibitatea, porrotaren kontrola, autonomia, enpatia, harremanak, motibazioa, pentsamendu kritikoa eta logika.
- Proiektu integralak (Bikaintasunerantz).
- Dramatizazioa.

Ikastetxe batzuek adierazi dute hainbat alderdi (aurrekoak barne) ikasle guztiekin landu dituztela.

DBH eta Batxilergoa

- Enpatia, gatazken bitartekotza, talde-lana, autoerregulazioa, funtzio exekutiboak, arreta eta trebetasunen sustapena.
- Helburu garatuagoak eta maila handiagokoak.
- Crealab: sormen-laborategia (Bikaintasunerantz).
- Maila handiagoko lan estrak.

Ikastetxe batzuk gaitasun handien tratamendua implementatzeko prozesuan daude.

4.2.1.5. Programazio didaktikoetan planteatutako jarduerak

Galde-sortan, curriculuma aberasteko programazio didaktikoen jarduerari buruzko honako galdera hau egin zen:

Programazio didaktikoetan, ikasleen beharrei begira, zein jarduera planteatu duzue curriculuma aberasteko?

Lurraldearen arabera


Oro har, curriculuma aberasteko jardueren ehunekorik handiena egiten duten zuzendariak Arabakoak dira, beste bi lurraldeetako zuzendariekin alderatuta.

Hiru salbuespen daude:

- Gipuzkoako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendariak (% 6,5) Arabakoek (% 4,1) eta Bizkaikoek (% 4,4) baino neurri handiagoan erantzun dute “beste batzuk”.
- DBHn eta Batxilergoan, ikaslearen eguneroko bizitzarekin lotutako bizipenak eta interesekin zerikusia duten jarduerak egin dituztela adierazi duten zuzendarien ehunekoa handiagoa izan da Bizkaian (% 51,7) Araban eta Gipuzkoan baino (% 43,6 eta % 45,9, hurrenez hurren).
- Halaber, DBHn eta Batxilergoan, jarduera gehiago/aparteko lana egin dutela adierazi duten zuzendarien ehunekoa handiagoa izan da Gipuzkoan (% 45,9) Bizkaian eta Araban baino (% 44,8 eta % 43,6, hurrenez hurren).


HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

4.2.1.5.a. grafikoa: Ikastetxeek programazio didaktikoetan curriculuma aberasteko planteatutako jardueren ehunekoa, lurraldearen arabera.



DBH ETA BATXILERGOA

4.2.1.5.b. grafikoa: Ikastetxeek programazio didaktikoetan curriculuma aberasteko planteatutako jardueren ehunekoa, lurraldearen arabera.




Hezkuntza-sarearen arabera

Oro har, curriculuma aberasteko jarduera gehiago egin dituztela adierazi duten zuzendarien artean, itunpeko sareak sare publikokoak baino gehiago izan dira. Salbuespen bakarrak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako sare publikoko zuzendariak izan dira, itunpeko sarekoek

baino neurri handiagoan egin baitituzte interakzio eta beste ikasleen lankidetzak jarduerak eta jarduera gehiago/aparteko lana.


HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

4.2.1.5.c. grafikoa: Ikastetxeek programazio didaktikoetan curriculuma aberasteko planteatutako jardueren ehunekoa, hezkuntza-sarearen arabera.



DBH ETA BATXILERGOA


4.2.1.5.d. grafikoa: Ikastetxeek programazio didaktikoetan curriculuma aberasteko planteatutako jardueren ehunekoa, hezkuntza-sarearen arabera.



Etaparen arabera

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan DBHn eta Batxilergoan baino aberaste-jarduera gehiago egin dira (% 47,5tik %72,5era eta % 31,1tik %67,5era, hurrenez hurren), erantzunen % 5 inguru biltzen dituen “beste batzuk” aukera kontuan hartu gabe.

4.2.1.5.e. grafikoa: Ikastetxeek programazio didaktikoetan curriculuma aberasteko planteatutako jardueren ehunekoa, etaparen arabera.



Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapak dituzten ikastetxeen erdietan baino gehiagotan, honako hauek egin dira: hainbat arlotako edukiak biltzen dituzten jarduerak (% 72,5), interakzio eta beste ikasleen lankidetzak jarduerak (% 70,8), Ikaslearen eguneroko bizitzarekin lotutako bizipenak eta interesak zerikusia duten jarduerak (% 67,7), trebetasun kognitibo konplexuagoak (hala nola aplikazioa, analisisa, sintesia, ebaluazioa eta sormena) behar dituzten jarduerak (% 61,2) eta erronka batean bildutako jarduerak (% 54,3). % 48 inguruk hainbat arlotako edukiak biltzen dituzten jarduerak egiten dituzte, eta ia ehuneko berak jarduera gehiago/aparteko lana (% 47,6).

DBHn eta Batxilergoan, jarduera berak lantzen dira, baina ehuneko txikiagoan. Ikastetxeen erdiek baino gehiagok hainbat arlotako edukiak biltzen dituzten jarduerak (% 67,5), trebetasun kognitibo konplexuagoak behar dituzten jarduerak (% 57,9) eta interakzio eta beste ikasleen lankidetzak jarduerak (% 56,4) baino ez dituzte egin.

Galde-sortan “beste batzuk” erantzun duten ikastetxeek zein adierazteko aukera izan dute.

Zeintzuk?

% 5 inguruk beste jarduera mota batzuk egin dituzte, hala nola:

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza

- Adin desberdineko ikasleen arteko jarduerak.
- Hainbat hizkuntza erabiltzea.

DBH eta Batxilergoa

- Eguneroko bizitzako jarduerak.
- Pentsamenduaren trebetasunari lotutako jarduerak.
- HAUSPOAren barruko tailerretan egindako jarduerak.
- Boluntarioritza-lanak.

Bestalde, ikastetxe batzuek adierazi dute ez dutela inolako jarduerarik egin ez dutelako horrelako ikaslerik, eta beste batzuek ikasle guztiei erantzuten dieten programazioak dituztela.


4.2.1.6. Gaitasun handiko edo errendimendu-maila aurreratuko ikasleekin esku hartu duten profesionalak

Galde-sortan, ikasle horiekin esku hartzen dutenei buruzko honako galdera hau egin zen:

Nork hartzen du esku ikasle hauekin?

Lurraldearen arabera


Hiru lurraldeetako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien % 80k baino gehiagok adierazi dute gelako tutoreak esku hartzen duela gaitasun handiak edo errendimendu-maila aurreratua dituzten ikasleekin. DBHn eta Batxilergoan, berriz, arloetako irakasleek egiten dutela adierazi dute.



Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendariak ikasle horiekin esku hartu duten profesionalak buruz eman dituzten erantzunak ez dute alde handirik lurraldeen artean. Edonola ere, portzentajezko 19 puntutik gorako aldeak ikusi dira DBHn eta Batxilergoan Arabaren eta Gipuzkoaren artean, eta 8,6 puntukoa Arabaren eta Bizkaiaren artean, orientatzailearen esku-hartzeari dagokionez. Halaber, portzentajezko 8 puntuko alde dago Gipuzkoaren, Arabaren eta Bizkaiaren artean, laguntzako irakasleak esku-hartzeari dagokionez (banaketa-gelak eta tutoretza partekatuek), eta ia 9 puntukoa Bizkaiaren eta Gipuzkoaren artean “beste profesional batzuei” dagokienez.

Hezkuntza-sarearen arabera

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, portzentajezko 18,4 puntuko aldea dago itunpeko sarearen alde (% 82,9) arloetako irakasleen esku-hartzeari dagokionez, 7 puntuko aldea sare publikoaren alde laguntzako irakasleei (banaketa-gelak eta tutoretza partekatuak) dagokienez (% 37,5), eta 4,2 puntuko aldea sare publikoaren alde aholkularien esku-hartzeari dagokionez. Zuzendariek beste profesional batzuei buruz emandako erantzunen kasuan, berriz, ez dago alde handirik bi sareen artean.




DBHn eta Batxilergoan, profesionalen esku-hartzearen ehuneko guztiak handiagoak izan dira itunpeko sarean sare publikoan baino. Nolanahi ere, alderik handienak gelako tutoreen kasuan (portzentajezko 28,5 puntuko aldea bi sareen artean), laguntzako irakasleen kasuan, hala nola banaketa-gelak eta tutoretza partekatuak egiten dituzten irakasleen kasuan (10,5 puntuko aldea) eta arloetako irakasleen kasuan (6,9 puntuko aldea) agertu dira.

Etaparen arabera

Esku-hartzearen zatirik handiena gelako tutoreek egiten dute Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan (kasuen % 88,1etan), eta DBHn eta Batxilergoan, berriz, arloko irakasleek (kasuen % 84,3tan).

4.2.1.6.e. grafikoa: Gaitasun handiak edo errendimendu-maila aurreratua dituzten ikasleekin esku hartzen duten profesionalak, etaparen arabera.



Bestalde, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, ikastetxeen % 66,2k adierazi dute aholkulariek esku hartzen dutela ikasle horiekin, eta DBHko eta Batxilergoko ikastetxeen % 63k, berriz, orientatzaileak esku hartzen duela adierazi dute.

Laguntzako irakasleen (banaketa-gelak eta tutoretza partekatuak) esku-hartzea handiagoa da Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan DBHn eta Batxilergoan baino (% 34,9 eta % 22,8, hurrenez hurren). Halaber, beste batzuek esku hartzen dutela erantzun duten ikastetxeen ehunekoa handiagoa da Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan DBHn eta Batxilergoan baino (% 9,2 eta % 6,8, hurrenez hurren).


4.2.1.7. Prozedura eta ekintza metodologikoak

Galde-sortan, errendimendu-maila aurreratuko ikasleen hezkuntza-premiei erantzuteko egindako prozedura eta ekintza metodologikoei buruzko honako galdera hau egin zen:

Zer prozedura eta ekintza metodologiko ezarri dituzue konpetentzia maila aurreratuak dituzten ikasleen beharrei erantzuteko?


Lurraldearen arabera

Ikastetxeek konpetentzietan aurreratuta dauden ikasleen premiei erantzuteko ezarritako prozedura eta ekintza metodologikoei dagokienez, ez dago alde handirik hiru lurraldeen artean, honako kasu honetan izan ezik: ingurune digitalen erabilera DBHn eta Batxilergoan (Arabako ehunekoa % 79,5era iritsi da, Gipuzkoan eta Bizkaian baino portzentajezko 23,4 eta 22,1 puntu gehiago, hurrenez hurren).



Hezkuntza-sarearen arabera

Itunpeko sareko ehunekoak sare publikokoak baino handiagoak dira kontsultatutako prozedura eta ekintza metodologiko guztietan, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan “helburu didaktikoa duten jokoetan oinarritutako ikaskuntza (GBL)” eta “beste batzuk” erantzunetan izan ezik, bi kasuetan aldeak portzentajezko 2 puntura iritsi ez badira ere.




Etaparen arabera

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, errendimendu-maila aurreratuko ikasleen premiei erantzuteko prozedurarik erabiliena tutoretza pertsonalizatuak eta taldekoak haien behar sozioemozionalei erantzuteko izan da (% 64,6), DBHn eta Batxilergoan, berriz, ingurune digitalak: classroom... (% 60).

Ikastetxeen erdiek baino gehiagok Problema edo Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (PBL) erabiltzen dute ikasle horiei erantzuteko (% 59,5k Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan eta % 54,6 DBHn eta Batxilergoan), erdiek baino gutxiagok ikerketaren prozedura erabili dute (% 45,7 eta % 43,9, hurrenez hurren).

4.2.1.7.e. grafikoa: Prozedura eta ekintza metodologikoen ehunekoa, etaparen arabera.



Zuzendarien % 10 inguruk adierazi dute beste prozedura batzuk erabiltzen dituztela, eta zein diren adierazteko aukera eman zaie.

Beste batzuk markatzen baduzu, zeintzuk?

Ikastetxeek beste prozedura eta ekintza metodologiko batzuei buruz emandako erantzunak honela sailkatu dira:

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza

- Amara Berri sistemak eskaintzen dituen aukerak.
- Antzerkiak, talde-jarduerak, baratzea, jarduera osagarriak.
- Garapen pertsonaleko proiektua: emozioak, autoezagutza, gizarte-trebetasunak, oratoria, orientazio akademikoa eta profesionala.
- Pentsamenduari lotutako trebetasunak eta errutinak.
- Gaitasunak lantzeko dinamikak.
- Talde malguak eta interaktiboak.
- Hurrengo mailako jarduerak.
- Robotika (Matematika).

DBH eta Batxilergoa

- Erabiltzen diren metodologiak, errendimendu-maila handia lortzeko aukerak dituzten ikasleentzat ez ezik, gainerako ikasleentzat ere erabiltzen dira.
- Ikaskuntza/zerbitzuko jarduerak, zientzia-lehiaketak, literatura-lehiaketak, argazki-lehiaketak eta abar.
- Sistematizatu gabeko jarduketa batzuk egiten dira.
- Erasmus +, hizkuntza-elkartrukeak, zientzia-tailerrak, workshopak eta abar.
- Sorkuntza-laboretegia: Crealab.
- Olinpiada matematikoak.
- Arlo bakoitzean sakontzeko lan estra.

Ingurune digitalei dagokienez, ikastetxeek adierazi dute aplikazioak erabiltzen dituztela, hala nola TEC eta Khan Academy, Classroom (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailan), Drive, Desing for change, Moddle, SNAPPET programa eta Webquest.

Gainera, kontsultatutako etapetako zuzendari batzuek erantzun dute honako hauek erabiltzen dituztela: ikaskuntza-komunitateak, lankidetzak-ikaskuntza, neurozientzia, ikasgelaren barruan aberasteko lekuak Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta aberaste-ikasgelak DBHn eta Batxilergoan. Halaber, zuzendari batzuek adierazi dute prozedura horiek ikasle guztiak erabiltzen dituztela, eta beste batzuek erantzun dute ez dutela ezer berezirik erabiltzen, profil hori duen ikaslerik ez dutelako.


4.2.1.8. Errendimendu-maila aurreratuko ikasleen eta gainerako ikasleen arteko lankidetzak

Galde-sortan, errendimendu-maila aurreratuko ikasleen eta gainerako ikasleen arteko lankidetzak bultzatzeko moduari buruzko honako galdera hau egin zen:

Nola bultzatzen duzue aurreratutako ikasleek gainerako ikaskideekin lankidetzan jardutea ikasle guztiak konpetentziak garatzean?

Lurraldearen arabera

Hiru lurraldeetako ikastetxeen % 80-90k erantzun dute lankidetzak sustatzea izan dela gehien egin duten ekintza errendimendu-maila aurreratuko ikasleen eta gainerako ikasleen arteko lankidetzak bultzatzeko. DBHn eta Batxilergoan, Araban egin da gehien ekintza hori (Gipuzkoan baino portzentajezko 6,6 puntu gehiago eta Bizkaian baino 6,1 bat gehiago). Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, berriz, lurraldeen arteko aldeak ez dira portzentajezko 1,5 puntura iritsi.




Lurraldeen artean, erantzunen ehunekoetan agertu diren alderik handienak errendimendu-maila aurreratuko ikasleen eta gainerako ikasleen arteko lankidetzaz bultzatzeko honako ekintza hauei lotutakoak dira:

- Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, maila ezberdineko ikasleen artean ekintzak (hala nola taldekatze malguak) bultzatzen dituztela adierazi duten zuzendarien ehunekorik handiena Gipuzkoakoa izan da lurraldeen artean (% 58,1), eta portzentajezko 14,8 puntuko aldea dago Arabarekin (% 43,2).
- DBHn eta Batxilergoan, parekoen artean tutorizazio gehien egin diren lurraldea Aragoa izan da (% 51,3), eta portzentajezko 22,7 puntuko aldea dago Gipuzkoarekin (% 28,6).

Galde-sortan aztertutako gainerako ekintzetan, lurraldeen arteko aldeak ez dira portzentajezko 6,5 puntura iritsi.

Hezkuntza-sarearen arabera

Bi sareetan, errendimendu-maila aurreratuko ikasleen eta gainerako ikasleen arteko lankidetzaz bultzatzeko gehien egin den ekintza lankidetzaz bultzatzea izan da (% 73,9tik % 92,4ra bitarte).



Oro har, errendimendu-maila aurreratuko ikasleen eta gainerako ikasleen arteko lankidetzak bultzatzeko ekintzak egin dituztela adierazi duten ikastetxeen ehunekoa handiagoa izan da itunpeko sarean sare publikoan baino.

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, sare publikoko zuzendarien ehunekoa hiru erantzun-aukeratan izan da itunpeko sareko zuzendariena baino handiagoa: maila ezberdineko ikasleen artean ekintzak bultzatzea, hala nola taldekatze malguak (portzentajezko 4 puntuko aldea), parekoen artean tutorizazioak (2,5 puntuko aldea) eta “beste batzuk” (6,1 puntuko aldea).


Etaparen arabera

Ikastetxeek egindako ekintzen ehunekoak handienetik txikienera ordenatu dira, ordena berdinean Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan zein DBHn eta Batxilergoan.

- Lankidetzak sustatzea (% 88,6 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 81,8 DBHn eta Batxilergoan).
- Talde interaktiboetan lan egitea (% 67,1 eta % 62,9, hurrenez hurren).
- Maila ezberdineko ikasleen artean ekintzak bultzatzea (% 52,5 eta % 40, hurrenez hurren).
- Tutorizazioak eginez parekoen artean (% 50,7 eta % 40,4, hurrenez hurren).
- Beste batzuk (% 6,2 eta % 4,6, hurrenez hurren).

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, errendimendu-maila aurreratuko ikasleen eta gainerako ikasleen arteko lankidetzak bultzatzeko ekintza gehiago egin dira DBHn eta Batxilergoan baino.

4.2.1.8.e. grafikoa: Errendimendu-maila handiko ikasleen eta gainerako ikasleen arteko lankidetzak bultzatzeko ekintzen ehunekoa, etaparen arabera.



4.2.1.9. Ikasle horien inplikazio aktiboa ikasteko prozesuan

Galde-sortan, ikasleei beren ikaskuntzan aktiboki inplikatzeko laguntzeko moduari buruzko honako galdera hau egin zen:


Nola laguntzen diozue ikasleari ikaskuntza-prozesuan inplikazio aktiboa izan dezan?

Lurraldearen arabera

Oro har, hiru lurraldeetako zuzendari gehienek adierazi dute ikasleei laguntzeko ekintzak egin dituztela beren ikasteko prozesuan inplikazio aktiboa izan dezaten, hala nola inklusioa erraztea (% 74,5tik %92,3ra), konfiantza-giro bat sustatzea (% 73,9tik 90,5era), lan autonomoa sustatzea (% 78,6tik %87,2ra), ikasleen interesak ahalbidetzea (% 65,3 %83,2ra) eta gai, proiektu edo ikerketetan proposamenak egin ditzaten laguntzea (% 64,3 %76,9ra).


HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

4.2.1.9.a.: Ikasleek beren ikaskuntzan inplikazio aktiboa izateko egindako ekintzen ehunekoa, lurraldearen arabera.



DBH ETA BATXILERGOA

4.2.1.9.b.: Ikasleek beren ikaskuntzan inplikazio aktiboa izateko egindako ekintzen ehunekoa, lurraldearen arabera.



DBHn eta Batxilergoan, Araban egin dira, oro har, ikasleek beren ikaskuntzan inplikazio aktiboa izateko ekintza gehien. Lurralde horren eta beste bien arteko aldeak portzentajezko 8 puntutik 18ra bitartekoak izan dira zazpi erantzun-aukeretako bostetan.


Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, hiru lurraldeetako portaera antzekoagoa izan da, eta kasu bakar batean baino ez da portzentajezko 7,2 puntura iritsi erantzunen ehunekoen arteko aldea.

Hezkuntza-sarearen arabera

Itunpeko sarean publikoan baino ekintza gehiago egin dira ikasleek beren ikaskuntzan inplikazio aktiboa izateko egindako ekintzen ehunekoa, hezkuntza-sarearen arabera.


HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

4.2.1.9.c.: Ikasleek beren ikaskuntzan inplikazio aktiboa izateko egindako ekintzen ehunekoa, hezkuntza-sarearen arabera.



DBH ETA BATXILERGOA

4.2.1.9.d.: Ikasleek beren ikaskuntzan inplikazio aktiboa izateko egindako ekintzen ehunekoa, hezkuntza-sarearen arabera.



Bi sareetan, ehunekoen arteko aldeak handiagoak izan dira DBHn eta Batxilergoan Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan baino. DBHn eta Batxilergoan, 7 ekintzetako 5etan


portzentajezko 11 puntutik gorako alde izan da itunpeko sarearen alde, eta Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, berriz, ekintza gehienetan izan diren aldeak ez dira 5,5 puntura iritsi.

Etaparen arabera

Oro har, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendariak ikasleek beren ikaskuntzan inplikazio aktiboa izateko egindako ekintzen ehunekoak DBHko eta Batxilergoko zuzendariak egindako ekintzen ehunekoak baino handiagoak izan dira. Aurkakoa, berriz, curriculumetik kanpoko eskaintza bat sustatzeko ekintzaren (gidarien bidezko programa, curriculum aberastea eta eskolaz kanpoko jarduerak) eta “beste batzuen” kasuan baino ez da gertatu. Bi aukera horiek izan dituzte erantzun-ehunekorik txikienak.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zein DBHko eta Batxilergoko zuzendarien % 70ek baino gehiagok erantzun dute ekintza gehienak egin dituztela. Salbuespenak honako hauek izan dira: proposamenak egin ditzaten laguntzea (% 66,8 DBHn eta Batxilergoan), curriculumetik kanpoko eskaintza sustatzea (% 31,5 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 37,5 DBHn eta Batxilergoan) eta “beste batzuk” (% 4,2 eta % 5,4, hurrenez hurren).

4.2.1.9.e.: Ikasleek beren ikaskuntzan inplikazio aktiboa izateko egindako ekintzen ehunekoa, etaparen arabera.



Zuzendarien % 10ek baino gutxiagok erantzun dute beste ekintza batzuk egin dituztela, eta zein diren azaltzeko aukera eman zaie.

Beste batzuk. zeintzuk?

Ikastetxeen % 10ek baino gutxiagok erantzun dute beste ekintza batzuk egin dituztela errendimendu-maila aurreratuko eta gaitasun handiko ikasleek beren ikaskuntzan inplikazio aktiboa izateko. Etaparen arabera, erantzunak honako hauek izan dira:

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza:

- Ikasleen Batzordeak.
- Ikastetxearen planteamendu metodologikoak, bere ohiko dinamikan, aukera ematen du integrazio hori beste ezein prozedurarik proposatu behar izan gabe egiteko.
- Ez dugu profil hori duen ikaslerik.
- Drive-ren erabilera.
- Irakurketa gidatuko taldeak.

- Aberaste-ikasgeletan egindako eta beste ikasgela batzuetan azaldutako proiektuak.

DBH eta Batxilergoa:

- Bidelaguna programan laguntzea.
- Ez dugu gaitasun handiko ikaslerik.


4.2.1.10. Esku-hartzearekiko asebetetze-maila

Galde-sortan, ikastetxeek errendimendu-maila aurreratua lortzeko aukera duten ikasleekin egin duten esku-hartzearekin duten asebetetze-mailari buruzko honako galdera hau egin zen:

Zein da zure asebetetze maila konpetentzien garapenean maila aurreratuak lortzeko aukerak dituzten ikasleekin ikastetxean egindako esku-hartzeari dagokionez?


Lurraldearen arabera

Oro har, ez dago alde handirik hiru lurraldeetako ehunekoen artean, errendimendu-maila aurreratuak lortzeko aukerak dituzten ikasleen esku-hartzeari lotutako erantzun-aukeretan. Hala ere, “nahiko gustura” eta “oso gustura” aukeren ehunekoak batuta ikus daitekeenez, haiek aukeratu dituzten hiru lurraldeetako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendariak % 58 baino gehiago izan dira, eta Gipuzkoako eta Arabako DBHko eta Batxilergoko zuzendariak berriz, ez dira % 47ra iritsi.



Hezkuntza-sarearen arabera


Sare publikoko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendariak sare itunpekoek baino asebetetze-maila handiagoa adierazi dute esku-hartzearekin. Itunpeko sareko DBHko eta Batxilergoko zuzendariak, berriz, sare publikoek baino asebetetze-maila handiagoa dute.



Etaparen arabera

Hiru lurraldeetan, bi sareetan eta aztertutako etapa guztietan, erantzun-ehunekorik handienak “nahiko gustura” eta “ez oso gustura” bitarteko aukeretan agertu dira.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendariak DBHkoek eta Batxilergoek baino asebetetze-maila handiagoa agertu dute errendimendu-maila aurreratuak lortzeko aukerak dituzten ikasleekiko esku-hartzearekin. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien ia % 6 lek adierazi dute nahiko gustura eta oso gustura daudela. DBHn eta Batxilergoan erantzun-aukera horiek aukeratu dituzten zuzendariak, berriz, ez dira % 49ra iritsi.



4.2.2. Ebaluazioa

Galde-sortan, ikasleen ebaluazioari buruzko honako galdera hau egin zen:


Ebaluazio-prozesuetan, zein aspektu izaten duzue kontuan maila aurreratuko ikasleekin?

Lurraldearen arabera

Errendimendu-maila aurreratuko ikasleak ebaluatzeko prozesuetan kontuan hartu diren alderdiei dagokienez, lurraldeen arteko aldeak handiagoak izan dira DBHn eta Batxilergoan Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan baino.


HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

4.2.2.a. grafikoa: Ebaluazio-saioretan errendimendu-maila aurreratuko ikasleekin kontuan hartutako alderdien ehunekoa, lurraldearen arabera.



DBH ETA BATXILERGOA

4.2.2.b. grafikoa: Ebaluazio-saioretan errendimendu-maila aurreratuko ikasleekin kontuan hartutako alderdien ehunekoa, lurraldearen arabera.



Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, portzentajezko 8 puntutik gorako aldea dago landutako alderdietara egokitutako proben diseinuan Bizkaiaren eta Arabaren artean (% 32,7 eta %24,3, hurrenez hurren), ebaluazioaren malgutzean (% 46,5 Gipuzkoan, % 44,7 Bizkaian eta % 36,5 Araban) eta beste ziklo edo etapa baterako igarotzeko prozesua zaintzean (% 61,5 Bizkaian eta % 52,7 Araban).

Bestalde, DBHn eta Batxilergoan aurreko etapetan baino alderdi gehiagotan dago portzentajezko 8 puntutik gorako aldea lurraldeen artean: landutako alderdietara egokitutako proben diseinua (% 38,5 Araban, % 26,6 Bizkaian eta % 22,4 Gipuzkoan), ebaluazio-saioretan eskainitako denbora


(% 49,7 Bizkaian, % 49 Gipuzkoan eta % 38,5 Araban), ebaluazioaren malgutzea (% 38,5 Araban eta % 28,6 Gipuzkoan), beste ziklo edo etapa batera igarotzeko prozesua zaintzea (% 61,5 Araban eta % 53,1 Gipuzkoan) eta ebaluazioaren egokitzapena (% 23,5 Gipuzkoan eta % 15,4 Araban).

Hezkuntza-sarearen arabera

Oro har, errendimendu-maila aurreratuko ikasleak ebaluatzeko prozesuetan, kontuan hartu diren alderdien ehunekoa handiagoa izan da itunpeko sarean publikoan baino. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, ehunekoak hiru alderditan soilik izan dira handiagoak (edo berdinak) sare publikoan itunpeko sarean baino: taldeko ebaluazio saioetan denbora ematea (% 60,6 sare publikoan % 50 itunpekoan), “beste batzuk (% 4,9 eta % 1,2, hurrenez hurren) eta arlo desberdinen ebaluazioa egokitzea (% 31,2 bi sareetan).


HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

4.2.2.c. grafikoa: Ebaluazio-saioetan errendimendu-maila aurreratuko ikasleekin kontuan hartutako alderdien ehunekoa, hezkuntza-sarearen arabera.



DBH ETA BATXILERGOA

4.2.2.d. grafikoa: Ebaluazio-saioetan errendimendu-maila aurreratuko ikasleekin kontuan hartutako alderdien ehunekoa, hezkuntza-sarearen arabera.



Etaparen arabera

Ebaluazio-prozesuetan gehien kontuan hartu den alderdia arlo emozionala da (% 83,1 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 70,4 DBHn eta Batxilergoan).

Oro har, ikaslerik aurreratuenen ebaluazioan kontuan hartutako alderdien ehunekoak handiagoak izan dira Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan DBHn eta Batxilergoan baino.

Ikastetxeen erdiek baino gehiagok erantzun dute ebaluazioan errendimendu-maila aurreratuko ikasleak hurrengo ziklo edo etapa batera igarotzeko prozesua zaintzen dutela (% 59,7k Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 56,8k DBHn eta Batxilergoan).

Taldeko ebaluazio saioetan ikasle horiei denbora eman dietela adierazi duten Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendariak DBHko eta Batxilergoko zuzendariak baino % 8,8 gehiago izan dira (% 56,6 eta % 47,9, hurrenez hurren).

4.2.2.e. grafikoa: Ebaluazio-saioetan errendimendu-maila aurreratuko ikasleekin kontuan hartutako alderdien ehunekoa, etaparen arabera.



Ikastetxeen erdiek baino gutxiagok adierazi dute ebaluazioa malgutzen dela % 33,2tik % 44ra, landutako aspektuari buruzko probak diseinatzen direla % 26,8tik % 30,1era eta arlo desberdinen ebaluazioa egokitzen dela % 22,1etik % 31,2ra.

Galde-sortan “beste batzuk” erantzun duten ikastetxeek zein adierazteko aukera izan dute.

Beste batzuk markatzen baduzu, zeintzuk?

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien % 3,3k eta DBHko eta Batxilergoko zuzendarien % 4,3k erantzun dute ebaluazio-prozesuetan beste alderdi batzuk hartu direla kontuan, hala nola gizarte-esparrua zaintzea, emaitzak ikasle bakoitzaren gaitasunetan oinarrituta ebaluatzea, portfolio pertsonala lantzea eta ikasleen jarraipen hurbila egitea.

4.2.3. Prestakuntza

4.2.3.1. Gaitasun handiko ikasleei buruzko prestakuntza-orduak aurreko ikasturtean


Galde-sortan, ikasleen ebaluazioari buruzko honako galdera hau egin zen:

lazko ikasturtean, gutxi gorabehera gaitasun handiak dituzten ikasleei buruz zenbat prestakuntza ordu izan dituzue?

Lurraldearen arabera

Hiru lurraldeetako zuzendari gehienek adierazi dute ez dutela jaso gaitasun handiko ikasleei buruzko prestakuntzarik, eta Gipuzkoa izan da ehunekorik txikiena izan duena (% 60 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 58,8 DBHn eta Batxilergoan).

4.2.3.1.a. grafikoa: Ikastetxeek aurreko ikasturtean (2017-2018) egindako prestakuntza-orduen ehunekoa, etaparen eta lurraldearen arabera.




Bost ordu baino gutxiagoko prestakuntza izan dutela adierazi duten zuzendarien ehunekorik handiena Gipuzkoakoa izan da (% 18,1 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 18,6 DBHn eta Batxilergoan), baita 5-20 orduko prestakuntza izan duten zuzendarien ehunekorik handiena ere (% 19,4 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 19,6 DBHn eta Batxilergoan). 20 ordutik gorako prestakuntzan, berriz, Arabak izan du ehunekorik handiena (% 2,7 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 5,1 DBHn eta Batxilergoan).

Hezkuntza-sarearen arabera

Bi sareetan, gaitasun handiko ikasleei buruzko prestakuntzarik izan ez dutela adierazi duten ikastetxeen ehunekoa prestakuntza hori jaso dutela adierazi duten ikastetxeena baino handiagoa izan da. Salbuespena itunpeko sareko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendariena izan da, zuzendari horien % 52,4k adierazi baitu prestakuntza motaren bat egin dutela.

Itunpekoan sare publikoan baino prestakuntza-ordu gehiago eman dira tarte guztietan (5 ordu baino gutxiago, 5-20 ordu eta 20 ordu baino gehiago). Adibidez, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, itunpeko sareko ikastetxeen % 22,9k adierazi dute 5-20 orduko prestakuntza izan dutela, eta hori adierazi duten sare publikoko ikastetxeak % 8,8 izan dira. DBHn eta Batxilergoan, berriz, hori adierazi duten itunpeko sareko ikastetxeak % 20 izan dira, eta sare publikokoak, berriz, % 4,2.

4.2.3.1.b. grafikoa: Ikastetxeek aurreko ikasturtean (2017-2018) egindako prestakuntza-orduen ehunekoa, etaparen eta hezkuntza-sarearen arabera.




Etaparen arabera

Ikastetxeek gaitasun handiko ikasleei lotutako prestakuntza-orduei buruzko erantzunak etaparen arabera aztertzen badira, alde handirik ez dagoela ikus daiteke.

Aztertutako etapa guztietako zuzendarien % 67,4 inguruk erantzun dute ez dutela horrelako prestakuntzarik jaso, % 16,3 inguruk adierazi dute bost ordu baino gutxiagoko prestakuntza izan dutela, % 13,7 inguruk 5-20 ordukoa eta % 2,6 inguruk 20 ordu baino gehiagokoa.

4.2.3.1.c. grafikoa: Ikastetxeek aurreko ikasturtean (2017-2018) egindako prestakuntza-orduen ehunekoa, etaparen arabera.



4.2.3.2. Gaitasun handiko ikasleei buruzko prestakuntzaren agenteak

Galde-sortan, prestakuntza eman duten erakundeei buruzko honako galdera hau egin zen:

Nork eman dizue noizbait gaitasun handiak dituzten ikasleei buruzko prestakuntza?


Lurraldearen arabera

Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeek erantzun dute Berritzeguneak direla prestakuntza-erakunderik ohikoenak gaitasun handiko ikasleen gaian. Araban, ordea, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan parekatu egin dira Berritzeguneek emandako prestakuntzari lotutako ehunekoa eta barruko formazioa edo auto-formakuntzari lotutako ehunekoa (%37,3), eta DBHn eta Batxilergoan barruko formazioa edo auto-formakuntzari lotutako ehunekoa Berritzeguneek emandako prestakuntzari lotutako ehunekoa baino handiagoa izan da (% 35,9 eta % 33,3, hurrenez hurren).

Gipuzkoa izan da elkarten eta beste erakunde batzuen prestakuntza gehien jaso duen lurraldea.


HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

4.2.3.2.a. grafikoa: Ikastetxeei gaitasun handien inguruko prestakuntza eman dieten erakundeen ehunekoa, lurraldearen arabera.



DBH ETA BATXILERGOA

4.2.3.2.b. grafikoa: Ikastetxeei gaitasun handien inguruko prestakuntza eman dieten erakundeen ehunekoa, lurraldearen arabera.




Arabako DBHko eta Batxilergoko zuzendaritza bakar batek ere ez du erantzun Prest Gararen prestakuntza jaso duela.

Hezkuntza-sarearen arabera

Erakunde guztiek emandako prestakuntzaren ehunekoa handiagoa izan da itunpeko sarean publikoan baino, Prest Gararen kasuan izan ezik. Izan ere, prestakuntza-erakunde horrek sare publikoan itunpeko sarean baino portzentajezko 4,0 puntu gehiagotan esku hartu du Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta 4,5 puntu gehiagotan DBHn eta Batxilergoan.


HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

4.2.3.2.c. grafikoa: Ikastetxeei gaitasun handien inguruko prestakuntza eman dieten erakundeen ehunekoa, hezkuntza-sarearen arabera.



DBH ETA BATXILERGOA

4.2.3.2.d. grafikoa: Ikastetxeei gaitasun handien inguruko prestakuntza eman dieten erakundeen ehunekoa, hezkuntza-sarearen arabera.



Sareak kontuan hartuta, prestakuntzaren ehunekorik handiena Berritzeguneena da, baina aldeak daude bi sareen artean. Izan ere, ehuneko hori 8,5 puntu handiagoa da itunpeko sareko Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta 19,8 puntu handiagoa DBHn eta Batxilergoan.

Halaber, ikus daitekeenez, itunpeko sareko ikastetxeek sare publikoko ikastetxeek baino neurri handiagoan jasotzen dute prestakuntza (portzentajezko 18,5 puntu gehiago Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta 22,5 puntu gehiago DBHn eta Batxilergoan), eta gauza bera gertatzen da

beste erakunde batzuekin (portzentajezko 13,3 puntu gehiago Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta 14,4 puntu gehiago DBHn eta Batxilergoan).

Ikastetxeetan prestakuntza gutxien ematen duen erakundea Unibertsitatea da, eta ehuneko handixeagoa da itunpeko sarean sare publikoan baino (portzentajezko 1,4tik 2ra puntuko aldea bi sareen artean, etapa guztietan).


Etaparen arabera

Zuzendarien % 45 inguruk erantzun dute Berritzeguneez eman dutela gaitasun handiko ikasleen inguruko prestakuntza.

DBHko eta Batxilergoko zuzendarien % 32,82k eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien % 28,2k adierazi dute gai horri buruzko barruko formazioa edo auto-formakuntza egin dutela.

Ikastetxeen % 13,4-17,5ek elkarteak edo beste erakunde batzuk aipatu dituzte prestakuntza-agenta gisa, eta, azkenik, ikastetxeen ehuneko txiki batek (% 3,5-6,1ek) Prest Gara eta unibertsitateak aipatu dituzte. Kasu horretan, ehuneko portzentajezko 1,5 puntu handiagoa izan da DBHn eta Batxilergoan (% 5) Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan (% 3,5) baino.

4.2.3.2.e. grafikoa: Ikastetxeei gaitasun handien inguruko prestakuntza eman dieten erakundeen ehunekoa, etaparen arabera.



4.2.3.3. Gaitasun handiko ikasleen inguruko prestakuntza-premiak


Galde-sortan, irakasleek gaitasun handiko ikasleen inguruan dituzten prestakuntza-premiei eta prestakuntzaren lehentasunari buruzko honako galdera hau egin zen:

Zer prestakuntza mota beharko lukete ikastetxeko irakasleek gaitasun handiak dituzten ikasleei buruz?

Lurraldearen arabera

Hiru lurraldeetako zuzendarien ehuneko handi batek adierazi du gaitasun handiko ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzunari lotutako eremu guztietan dituztela prestakuntza-premiak (% 75ek baino gehiagok kasu guztietan).


Premiarik handienak Arabako DBHko eta Batxilergoko zuzendariak adierazi dituzte, haiek bildu baitituzte ehunekorik handienak erantzun-aukera guztietan, % 84,6tik % 97,4ra), detekzioan eta identifikazioan izan ezik; esparru horretan, Gipuzkoako etapa horietako zuzendariak izan dituzte premiarik handienak (% 88,7k). Etapa horietan, prestakuntza-premien ehunekorik txikiena Bizkaikoa izan da.



Hiru lurraldeetako zuzendariak adierazi dute prestakuntza-premiarik handiena duen esparrua gaitasun handiko ikasleekiko esku-hartzea dela. Salbuespena Arabako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendariena da; haiek adierazi dutenez, ebaluazioan dute prestakuntza-premiarik handiena.

Hezkuntza-sarearen arabera

Bi sareetako zuzendariak, % 71tik % 89,8ra, adierazi dute erantzun-aukera guztietan dituztela prestakuntza-premiak.




Oro har, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan erantzun dutenaren arabera, esparru guztietako prestakuntza-premia handiagoa dago sare publikoko ikastetxeetan itunpeko sarekoetan baino. DBHn eta Batxilergoan, berriz, aurkakoa gertatzen da. Salbuespena hasierako prestakuntzaren premia izan da DBHn eta Batxilergoan, prestakuntza mota horri dagokionez sare publikoko ikastetxeek itunpeko sarekoek baino premia handiagoa baitute (portzentajezko 9,4 puntu gehiago).

Etaparen arabera

Prestakuntza-premia etapa guztietan oso handia bada ere (% 77,8tik % 86,8ra bitarte), oro har prestakuntza-premiak handixeagoak dira Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan DBHn eta

Batxilergoan baino, detekzioan eta identifikazioan izan ezik; esparru horretan, ehunekoak parekatuta daude (% 82,4).

4.2.3.3.e. grafikoa.: Prestakuntza-premien ehunekoa, etaparen arabera.



Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien % 86,8k eta DBHko eta Batxilergoko zuzendarien % 86,4k adierazi dute esku-hartzean behar dutela prestakuntza.

4.2.3.4. Gaitasun handiko ikasleei buruzko prestakuntzaren lehentasuna ikastetxean

Atal honek galderaren bigarren zatia du ardatz, hau da, prestakuntza ikastetxearentzat lehentasunezkoa den ala ez.

Lehentasuna al da prestakuntza hori zure ikastetxean?


Lurraldearen arabera

Hiru lurraldeetako ikastetxeen % 41ek baino gutxiagok lehentasunezkoztat hartzen dute gaitasun handiko ikasleei buruzko prestakuntza.

Arabako zuzendariak Bizkaikoek eta Gipuzkoakoek baino neurri handiagoan hartzen dute lehentasunezkoztat gaitasun handiko ikasleei buruzko prestakuntza (% 40,5ek Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 38,5ek DBHn eta Batxilergoan)

Prestakuntza hori lehentasunezkoztat hartzen dituzten zuzendarien ehunekorik txikienak Bizkaikoak izan dira (% 31,9 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 27,3 DBHn eta Batxilergoan).


4.2.3.4.a. grafikoa: Gaitasun handiko ikasleei buruzko prestakuntza lehentasunezkoztat hartzen duten ikastetxeen ehunekoa, lurraldearen arabera.



Hezkuntza-sarearen arabera

Gaitasun handiko ikasleei buruzko prestakuntza lehentasunezkoztat hartzen duten zuzendarien ehunekoa handiagoa izan da itunpeko sarean sare publikoan baino. Prestakuntza hori lehentasunezkoa dela erantzun duten itunpeko sareko zuzendarien ehunekoa % 40tik % 45,3ra da, eta sare publikoko zuzendariena ez da % 28ra iritsi ezein etapatan.


4.2.3.4.b. grafikoa: Gaitasun handiko ikasleei buruzko prestakuntza lehentasunezkoztat hartzen duten ikastetxeen ehunekoa, etaparen eta hezkuntza-sarearen arabera.



Etaparen arabera

Ikastetxeen erdiek baino gehiagok uste dute ez dela lehentasunezkoa gaitasun handiko ikasleei buruzko prestakuntza (Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien % 65,6k eta DBHko eta Batxilergoko zuzendarien % 68,8k).

4.2.3.4.c. grafikoa: Gaitasun handiko ikasleei buruzko prestakuntza lehentasunezkoztat hartzen duten ikastetxeen ehunekoa, etaparen arabera.



Prestakuntza mota hori lehentasunezkoztat hartu duten Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendariak DBHkoak eta Batxilergokoak baino ia % 3 gehiago izan dira.

4.2.4. Aholkularitza eta lankidetzak


Galde-sortan, gaitasun handiko ikasleen premiei erantzuteko lankidetzari buruzko honako galdera hau egin zen:

Nori eskatzen diozue lankidetzak gaitasun handiak dituzten ikasleen beharrei erantzuteko?

Lurraldearen arabera

Hiru lurraldeetako zuzendariak, % 82,5tik % 94,9ra, hezkuntza-premia berezietako aholkulariei eskatu diete laguntza, eta % 45,9tik %54,5era Berritzeguneen etapako aholkulariei. Azken aholkulari horiei eskaera gutxien egin dien lurraldea Araba izan da (% 45,9 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 48,7 DBHn eta Batxilergoan).


4.2.4.a. grafikoa: Ikastetxeek hainbat erakunderi egindako laguntza-eskaeren ehunekoa, lurraldearen arabera.



Hezkuntza-sarearen arabera

Laguntza-eskaera, ehuneko handienetik txikienera, honela banatuta dago bi sareetan: Berritzeguneen HPBetako aholkularitza (% 79,8tik % 93ra), Berritzeguneen etapako aholkularitza (% 46,5tik % 59,7ra), elkarteak (% 13,7tik % 33,5era) eta beste batzuk (% 12,6tik % 30,6ra).

4.2.4.b. grafikoa: Ikastetxeek hainbat erakunderi egindako laguntza-eskaeren ehunekoa, etaparen eta hezkuntza-sarearen arabera.



Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, laguntza Berritzeguneen HPBetako aholkulariei eskatu dieten sare publikoko zuzendarien ehunekoa itunpeko sarekoa baino handiagoa izan da (portzentajezko 6,5 puntu handiagoa). DBHn eta Batxilergoan, berriz, laguntza hori eskatu duten itunpeko sareko zuzendariak sare publikokoak baino gehiago izan dira.

Laguntza Berritzeguneen etapako aholkulariei eskatu dieten sare publikoko zuzendarien ehunekoa itunpeko sareko zuzendariena baino handiagoa izan da (portzentajezko 8,5 puntu gehiago Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta 11,5 puntu gehiago DBHn eta Batxilergoan).


Itunpeko sarean sare publikoan baino neurri handiagoan eskatu zaie laguntza elkarteei eta “beste batzuei”.

Etaparen arabera

Gaitasun handiko ikasleen premiei erantzuteko hainbat profesionali eta erakunderi egindako laguntza-eskaerari dagokionez, ez dago alde handirik etapen artean.

Ikastetxe gehienek erantzun dute Berritzeguneen laguntza eskatu dutela, eta, laguntza-zerbitzu horietako profesionalen artean, hezkuntza-premia berezietako aholkulariei eta etapako aholkulariei eskatu dietela laguntza (ikastetxeen % 86,4 tik % 90,5era eta % 51,8tik % 53 ra, hurrenez hurren).

4.2.4.c. grafikoa: Ikastetxeek hainbat erakunderi egindako laguntza-eskaeren ehunekoa, etaparen arabera.



Zuzendariek, % 21,1etik % 27,7ra, elkaratee eskatu diete laguntza, eta, % 19,3tik 19,8ra, berriz, beste erakunde batzuei (zehaztu gabe).

4.2.5. Gaitasun handiko ikasleen familiak


4.2.5.1. Gaitasun handiko ikasleen familiekin egindako ekintzak

Galde-sortan, gaitasun handiko seme-alabak dituzten familiei buruzko honako galdera hau egin zen:

Gaur egun zuen zentroan, zer ekintza sustatzen dituzue gaitasun handiak dituzten seme-alabak dituzten familiekin?

Lurraldearen arabera

Hiru Lurraldeko Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, ez dago alde handirik gaitasun handiko seme-alabak dituzten familiekin egindako ekintzen ehunekoen artean. Alderik handiena portzentajezko 6,7 puntukoa izan da Gipuzkoaren eta Arabaren artean, baterako esku-hartze bat egiteari dagokionez.




Oro har, familiekin ekintza gehien egin dituen lurraldea Gipuzkoa izan da, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan.

DBHn eta Batxilergoan, bi ekintzatan gainditu da portzentajezko 6 puntuko aldea lurraldeen artean: familien eskarien bilketa erraztea (% 71,8 Araban, % 62,9 Gipuzkoan, eta % 57,3 Bizkaian) eta familiak orientatzea (% 69,1 Gipuzkoan eta % 62,2 Bizkaian).

Hezkuntza-sarearen arabera

Itunpeko sarean sare publikoan baino ekintza-ehuneko handiagoa egin da familiekin. Bi sareen arteko aldeak portzentajezko 14,5 puntutik 31,7ra bitartekoak dira, familiak prestatzeko ekintzen eta "beste batzuen" kasuetan izan ezik. Kasu horietan, aldeak txikiagoak dira edo sare publikoko ehunekoak itunpeko sarekoak baino handixeagoak dira.



Etaparen arabera


Ikastetxe gehienek erantzun dute orientazio-ekintzak egiten dituztela familiekin. Nolanahi ere, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeek DBHko eta Batxilergoko ikastetxeek baino neurri handiagoan egiten dituzte ekintza horiek (% 70,9k eta % 65,2k, hurrenez hurren).

Gehien egin den bigarren ekintza familien eskarien bilketa erraztea izan da (% 61,3 DBHn eta % 63,6 Haur eta Lehen Hezkuntzan).

Ikastetxeen erdiek, gutxi gorabehera, esku-hartze plana familiei jakinarazi diete, eta baterako esku-hartze bat egin dute ikasle horien familiekin.

Familiekin gutxien egin den ekintzetako bat prestakuntza ematea izan da (% 5,3tik % 6,8ra bitarte).

4.2.5.1.e. grafikoa: Familiekin egiten diren ekintzen ehunekoa, etaparen arabera.



Ikastetxeen % 4k baino gutxiagok adierazi dute beste ekintza batzuk egin dituztela, eta zein diren deskribatzeko aukera izan dute.

Zeintzuk?

Etaparen guztietan, erantzunetako bat “familia elkarteetara bideratzea” izan da. Bestalde, ikastetxe batzuek adierazi dute ez dutela ezaugarri horiek dituen ikaslerik, eta horregatik ez dutela ezein ekintzarik egin.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendari batzuek argitu dute galderaren aukeretan agertzen diren ekintzak, gaitasun handiko ikasleen familiekin ez ezik, beste familia guztiekin ere egin dituztela. DBHn eta Batxilergoan erantzun dutenez, familia batzuek ez dute inolako esku-hartzerik egin nahi izan beren seme-alabekin, eta, horregatik, ikasle horiek ez dute diagnostiko ofizialik.

4.2.5.2. Gaitasun handiko ikasleen familien ezaugarriak

Galde-sortan, gaitasun handiko seme-alabak dituzten familien ezaugarriari buruzko honako galdera hau egin zen:

Honako baieztapen hauetatik zein izan daitezke zuen ikastetxean gaitasun handiak dituzten seme-alaben familien ezaugarriak?


Lurraldearen arabera

Ikastetxeetako zuzendariak gaitasun handiko ikasleen familien ezaugarriari buruz duten ikuspuntuari dagokionez, alde handiak daude lurraldeen artean.

Zuzendarien iritziaren arabera, ikasle horien familien asebetetzearen ehunekoa handiagoa da Gipuzkoan gainerako bi lurraldeetan baino. Nolanahi ere, alderik handiena Arabarekin izan da (portzentajezko 20,5 puntuko alde Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta 9,4 puntuko DBHn eta Batxilergoan). Halaber, ikasle horien familiek lankidetzan dihardutela adierazi duten Gipuzkoako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien ehunekoa (% 36,6) Bizkaikoa (% 30,2) eta Arabakoa (% 28,8) baino handiagoa izan da. DBHn eta Batxilergoan, berriz, familiek lankidetzan dihardutela adierazi duten zuzendarien ehunekorik handiena Arabakoa izan da (% 35,9 Araban, % 29,9 Gipuzkoan eta % 28,2 Bizkaian).


HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

4.2.5.2.a. *grafikoa*: Gaitasun handiko ikasleen familien ezaugarriak, lurraldearen arabera.



DBH ETA BATXILERGOA

4.2.5.2.b. *grafikoa*: Gaitasun handiko ikasleen familien ezaugarriak, lurraldearen arabera.



Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien ikuspuntutik, Bizkaiko familiek (% 47,7k) konfiantza-maila handiagoa dute ikastetxean Arabakoek eta Gipuzkoakoek baino (% 35,6 eta % 43,8, hurrenez hurren). DBHko eta Batxilergoko zuzendarien artean, Bizkaikoak dira ikastetxean konfiantza gutxien dutenak (% 37,3 Bizkaian, % 40,2 Gipuzkoan, eta % 43,6 Araban).

Familiak ikastetxeari egindako informazio-eskaerari dagokionez, Gipuzkoak du ehunekorik handiena Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan (% 51), ea Bizkaiak DBHn eta Batxilergoan (% 44,4).

Gipuzkoako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendariak (% 56,2k) Arabakoek eta Gipuzkoakoek (% 38,4k eta % 48,6k, hurrenez hurren) baino neurri handiagoan erantzun dute familiak orientabideak eskatzen dituztela. DBHn eta Batxilergoan, berriz, ehunekorik handiena Arabakoa da (% 56,4 Araban, % 47,4 Gipuzkoan eta % 45,8 Bizkaian).


Arabako zuzendariak Bizkaiakoek eta Gipuzkoakoek baino neurri handiagoan adierazi dute ez dutela horrelako ikaslerik (% 46,6k Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 56,4k DBHn eta Batxilergoan).

Hezkuntza-sarearen arabera

Itunpeko sareko zuzendarien ehunekoak sare publikoak baino handiagoak dira gaitasun handiko ikasleen familien ezaugarri gehienetan.


HAUR HEZKUNTZA ETA LEHEN HEZKUNTZA

4.2.5.2.c. grafikoa: Gaitasun handiko ikasleen familien ezaugarriak, hezkuntza-sarearen arabera.



DBH ETA BATXILERGOA

4.2.5.2.d. grafikoa: Gaitasun handiko ikasleen familien ezaugarriak, hezkuntza-sarearen arabera.



Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzan, itunpeko sarearen aldeko desberdintasunak portzentajezko 10 puntutik gorakoak dira sei ezaugarritan: hezkuntza-erantzuna eta orientabideak eskatzen dituzte, esku-hartzeari buruzko informazioa eskatzen dute, lankidetzan dihardute, asko eskatzen dute, konfiantza dute ikastetxean eta gustura daude ikastetxearekin.


DBHn eta Batxilergoan, itunpeko sarearen aldeko desberdintasunak 7 ezaugarritan dira portzentajezko 10 puntutik gorakoak: orientabideak eskatzen dituzte, laguntzeko jarrera agertzen dute, zorrotzak dira, informazioa eskatzen dute, konfiantza dute ikastetxean, ikastetxeak ez die familiaren premiei erantzuten eta pozik daude ikastetxearekin.

Horrelako ikaslerik ez dutela erantzun duten sare publikoko zuzendarien ehunekoa soilik izan da itunpeko sareko zuzendariena baino handiagoa (portzentajezko 26,5 puntuko aldea Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta 10,9 puntukoa DBHn eta Batxilergoan).

Etaparen arabera

Zuzendariak, % 39,2tik %49,6ra, adierazi dute familiek orientabideak, hezkuntza-erantzuna eta esku-hartzeari buruzko informazioa eskatzen dutela eta ikastetxean konfiantza dutela.

4.2.5.2.e. grafikoa: Gaitasun handiko ikasleen familien ezaugarriak, etaparen arabera.



Beste aldetik adierazi dute, % 19,8tik % 35era, familiek laguntzeko jarrera dutela, ikastetxearekin gustura daudela, zorrotzak direla edo ikastetxean gaitasun handiko ikaslerik ez dagoela.

Ikastetxeen % 14,5ek baino gutxiagok erantzun dute ikastetxeak familia horien premiei erantzuten ez diela, ikastetxearekin ados ez daudela edo elkarre bat sortu dutela. Azken ezaugarri horrek izan du ehunekorik txikiena (% 0,7tik % 1,3ra bitarte).

4.2.6. Ikastetxeen sentikortasuna errendimendu-maila aurreratuko eta gaitasun handiko ikasleei emandako erantzunaren aurrean

4.2.6.1. Ikastetxeek errendimendu-maila aurreratuko eta gaitasun handiko ikasleen arretari ematen dioten lehentasuna


Galde-sortan, ikastetxeek errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleei emandako erantzunari ematen dioten lehentasunari buruzko honako galdera hau egin zen:

Zuen ikastetxean, zer neurritan da lehentasunezkoa gaitasun handiei arreta ematea?

Lurraldearen arabera

Oro har, hiru lurraldeetako ikastetxeetako zuzendariak, %51,4tik %66,7ra, adierazi dute lehentasuna “nahikoa” eta “asko” eman diotela errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleen arretari. Salbuespen bakarra Bizkaiko DBHko eta Batxilergoko zuzendariena izan da, erdiek baino gutxiagok (% 43k) adierazi baitute hori.


4.2.6.1.a. grafikoa: Ikastetxeek errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleen arretari ematen dioten lehentasunari lotutako ehunekoa, lurraldearen arabera.



Hezkuntza-sarearen arabera

Adierazitako arretari lehentasuna “nahikoa” eta “asko” eman dioten zuzendarien ehunekoak batuta ikus daitekeenez, itunpeko sareko zuzendariak sare publikokoek baino lehentasun handiagoa ematen diote errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleen arretari (Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, aldea ez da iritsi portzentajezko 2 puntura, eta, DBHn, berriz, 17,4 puntukoa izan da). Beraz, sare publikoko DBHko eta Batxilergoko zuzendariak izan dira arreta horri lehentasunik txikiena eman diotenak (% 40,7).


4.2.6.1.b. grafikoa: Ikastetxeek errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleen arretari ematen dioten lehentasunari lotutako ehunekoa, hezkuntza-sarearen arabera.



Etaparen arabera

Erantzunen ehunekorik handienak bitarteko aukeretan agertu dira (lehentasuna “nahikoa” eta “asko”), eta hiru lurraldeetan, bi sareetan eta Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan zein DBHn eta Batxilergoan gertatu da hori.

Errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleen arretari lehentasuna “nahikoa” eta “asko” eman diotela adierazi duten Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien ehunekoa DBHko eta Batxilergoko zuzendariena baino handiagoa izan da (% 57 eta % 50,7, hurrenez hurren).



4.2.6.2. Ikastetxeek errendimendu-maila aurreratuko eta gaitasun handiko ikasleen motibazio-mailari buruz duten ezagutza

Galde-sortan, errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleen motibazioaren inguruko ezagutza-mailari buruzko honako galdera hau egin zen:


Arlolikasgai ugarietan ikasteko ikasle horiek duten motibazio maila ezagutzen duzue?

Lurraldearen arabera

Hiru lurraldeetako zuzendarien % 50ek baino gehiagok adierazi dute ikasleen motibazio-mailari buruzko ezagutza “nahikoa” eta “asko” dutela. Nolanahi ere, Gipuzkoako zuzendariak dira gehien ezagutzen dutenak.

Gaitasun handiko ikasleen motibazioari buruz duten ezagutza “batere ez” dela adierazi duten zuzendarien ehunekorik handiena Arabako zuzendariena izan da (% 13,7 eta % 15,4, hurrenez hurren).


4.2.6.2.a. grafikoa: Errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleen motibazio-mailaren ezagutza, lurraldearen arabera.



Hezkuntza-sarearen arabera

Errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleen motibazio-maila ezagutzen dutela adierazi duten zuzendarien ehunekoa handiagoa izan da itunpeko sarean sare publikoan baino.

4.2.6.2.b. grafikoa: Errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleen motibazio-mailaren ezagutza, hezkuntza-sarearen arabera.



Portzentajezko 6,1 puntuko aldea dago ikasle horien motibazioari buruz duten ezagutza “nahikoa” eta “asko” dela adierazi duten itunpeko sareko eta sare publikoko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien artean, eta 11,3 puntukoa bi sareetako DBHko eta Batxilergoko zuzendarien artean.


Gainera, ikasle horien motibazio-mailari buruz duten ezagutza “batere ez” dela adierazi duten sare publikoko zuzendarien ehunekoa itunpeko sareko zuzendariena baino handiagoa izan da (portzentajezko 5,2 puntuko aldea Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta 1,6 puntukoa DBHn eta Batxilergoan).

Etaparen arabera

Erantzunen ehunekorik handienak bitarteko aukeretan agertu dira (errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleen motibazio-mailari buruzko ezagutza “nahikoa” eta “asko”), eta hiru lurraldeetan, bi sareetan eta Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan zein DBHn eta Batxilergoan gertatu da hori.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien % 60,5ek eta DBHko zuzendarien % 54k adierazi dute ikasle horien motibazio-mailari buruzko ezagutza “nahikoa” eta “asko” dutela.

4.2.6.2.c. grafikoa: Errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleen motibazio-mailaren ezagutza, etaparen arabera.



Errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleen motibazio-mailari buruzko ezagutza handiagoa da Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan DBHn eta Batxilergoan baino.

4.2.6.3. Ikastetxeek errendimendu-maila aurreratuko eta gaitasun handiko ikasleen asebetetze-mailari buruz duten ezagutza


Galde-sortan, errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleen asebetetze-mailari buruzko honako galdera hau egin zen:

Arlolikasgai ugarietan ikasteko ikasle horiek duten asebetetze maila orokorra ezagutzen duzue?

Lurraldearen arabera

Hiru lurraldeetako zuzendariak, % 46,6tik %60,1era, adierazi dute errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleen asebetetze-mailari buruz duten ezagutza “nahikoa” eta “asko” dela. Bi erantzun-aukera horiek batzean % 50eko ehunekoa gainditzen duten zuzendariak Bizkaiko eta Gipuzkoako Haur Hezkuntzakoak eta Lehen Hezkuntzakoak (% 55,4 eta % 60,1, hurrenez hurren) eta Bizkaiko DBHkoak eta Batxilergokoak (% 52,1) izan dira.

4.2.6.3.a. grafikoa: Errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleen gogobetetze-mailaren ezagutza, lurraldearen arabera.




Ikasle horien asebetetze-mailari buruzko ezagutza “batere ez” dela adierazi duten zuzendarien ehunekorik handiena Arabakoa izan da (% 14,6 inguru).

Hezkuntza-sarearen arabera

Itunpeko sareko zuzendariak sare publikokoek baino neurri handiagoan ezagutzen dute errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleen asebetetze-maila.

4.2.6.3.b. grafikoa: Errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleen gogobetetze-mailaren ezagutza, hezkuntza-sarearen arabera.




Ikasle horien asebetetze-mailari buruzko ezagutza “nahikoa” eta “asko” dela adierazi duten itunpeko sareko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendariak sare publikoak baino % 9,2 gehiago izan dira. Halaber, ezagutza “nahikoa” eta “asko” dutela adierazi duten itunpeko sareko DBHko eta Batxilergoko zuzendariak sare publikoak baino % 13,9 gehiago izan dira.

Asebetetze-mailaren ezagutza “batere ez” dutela adierazi duten zuzendarien ehunekoa ezein saretan % 13ra iristen ez bada ere, sare publikoan itunpekoan baino handiagoa izan da.

Etaparen arabera

Erantzunen ehunekorik handienak bitarteko aukeretan agertu dira (errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleen asebetetze-mailari buruzko ezagutza “nahikoa” eta “gutxi”), eta hiru lurraldeetan, bi sareetan eta Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan zein DBHn eta Batxilergoan gertatu da hori.

4.2.6.3.c. grafikoa: Errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleen gogobetetze-mailaren ezagutza, etaparen arabera.



Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien % 55,6k eta DBHko eta Batxilergoko zuzendarien % 50,4k adierazi dute ikasle horien asebetetze-mailari buruzko ezagutza “nahikoa” eta “asko” dutela.

4.2.6.4. Hezkuntza Sistemaren hobekuntza-ekintzak

Galde-sortan, Hezkuntza Sistemaren ikasle horiei eman beharreko erantzuna hobetzeko egin dezakeenari buruzko honako galdera hau egin zen:

Zer egin genezake Hezkuntza Sistemak gaitasun handiak dituzten ikasleei emandako erantzuna hobetzeko?

Galdera irekia izan zen, eta ikastetxeek hainbat erantzun eman zituzten. Erantzun horiek honela taldekatu dira, emandako erantzunen kopuruaren arabera ordenatuta:

- Baliabide gehiago: pertsonalak, ekonomikoak, orduak...
- Prestakuntza
- Sentsibilizazioa


4.2.6.5. Aniztasunaren Arretarako Plana: gaitasun handiak

Galde-sortan, Aniztasunaren Arretarako Planaren bidez ikasle horiei eman beharreko erantzuna hobetzeko aukerari buruzko honako galdera hau egin zen:

Eusko Jaurlaritzaren Aniztasunaren Tratarera Planaren bidez: Gaitasun Handiak, zure ustez:

Lurraldearen arabera


Ondorengo grafikoan, hiru lurraldeetako zuzendarien iritziak agertzen dira.



Hiru lurraldeetako zuzendari gehienek (%79,6tik %92,3ra)uste dute Aniztasunaren Arretarako Planaren bidez hobetu litezkeela ikasle horiekiko ekintzak. Nolanahi ere, ehunekorik handienak Arabakoak dira (% 87,7 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 92,3 DBHn eta Batxilergoan).


Hezkuntza-sarearen arabera

Aniztasunaren Arretarako Planak ikasle horiekiko ekintzetan duen eraginari buruz zuzendariak adierazi dituzten iritziak antzekoak izan dira.



Etaparen arabera

Ikastetxe gehienen ustez, Aniztasunaren Arretarako Planaren bidez hobetu liteke ikasle horiekiko ekintzak (% 82k).



5. EAEn diagnostikatutako gaitasun handiko ikasleak

Atal honen barruan, Berritzeguneetako hezkuntza-premia berezietako aholkulariek adimen-gaitasun handiarekin diagnostikatu dituzten ikasleei buruzko datuak aztertuko dira.


Adimen-gaitasun handiko ikasleen diagnostikoa honako ardatz diagnostiko hauetan zatituta dago:

- heltze goiztiarra
- talentua (sinplea, anizkoitza edo konplexua)
- supergaitasuna

5.1. Heltze goiztiarra, talentua eta supergaitasuna duten EAEko ikasleak

Azkenik, EAEko hezkuntza-sistemaren datu-basean, 2018ko urria adimen-gaitasun handiko 747 ikasle daude Berritzeguneetako hezkuntza-premia berezietako aholkulariek ofizialki identifikatuta.


5.1.a. grafikoa: HPBetako aholkulariek diagnostikatutako EAEko adimen-gaitasun handiko ikasleen kopurua.



Diagnostikatutako ikasle horien guztien artean, 100 ikasle (% 13,4k) heltze goiztiarra dute, 254k (% 34k) talentu sinplea, anizkoitza edo konplexua, eta 393k (% 52,6k) supergaitasuna. HPBetako aholkulariek identifikatutako adimen-gaitasun handiko ikasleen erdiek baino gehiagok supergaitasuna dute.

Heltze goiztiarra duten ikasleei buruzko datuak aztertzean detektatuenez, 100 ikasleak ondorengo grafikoan ikus daitezkeen bezala banatuta daude etapa guztietan:

5.1.b. grafikoa: Heltze goiztiarra duten ikasleen kopurua, etaparen arabera.



Heltze goiztiarra bilakaerari lotutako diagnostikoa da. Modu honetan adierazten du hezkuntza-premia espezifikoak kodifikazioak: *“Goiztiarra... garapen erritmoa azkarrago izaten da, baina ez garapen-maila ez da handiago. Alabaina, heltze-prozesua amaitzen denean adimen-gaitasuna ikaskideen parekoa izaten da (Castelló eta Martínez, 1998)”*

Oinarri hau kontuan izaten, lagina definitu eta aztertzeko helburuz, honako ikasle hauek ez sartzea erabaki da:


- Lehen Hezkuntzako 3. mailan eskolatuta dauden eta adimen-gaitasun handiari lotutako ezohiko baliabideak (ezohiko curriculum-neurriak edo eskolatzaldia malgutzeko neurriak) ezarrita ez dituzten ikasleekin. 9 ikasle dira guztira.
- Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailatan eskolatutako ikasleekin (27 ikasle dira).
- DBHn eskolatutako ikasleekin (26 ikasle dira)
- Batxilergoan eskolatutako ikasleekin (3 ikasle dira)
- Musika-Kontserbatorioetan eskolatutako ikasleekin (3 ikasle dira)

Bestalde, beste hezkuntza-tartekoetan, diagnostikatutako ikasleak definitzeko, taldekatzeko eta konparatzeko. Hau da, Lanbide Heziketa-Zikloak ematen dituzten ikastetxeetan eta Musika-Kontserbatorioetan eskolatutako ikasleak. Guztira, adimen-gaitasun handiko 19 ikasle dira (8k talentua dute, eta 11k supergaitasuna), eta atal berezi bat eskainiko diegu (5.1.9 atala).

Hurrengo grafikoa, adimen-gaitasun handiarekin diagnostikatuta dauden eta honako atal hauetan kontuan hartuko diren ikasleen kopurua agertzen da.


Txosten honetan aztertuko diren adimen-gaitasun handiko 660 ikasleetatik, % 4,8 heltze goiztiarreko ikasleak dira, % 37,3 talentu motaren bat dutenak, eta erdiak baino gehiago (ia % 58) supergaitasuna dutenak.

5.1.c. grafikoa: Adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleak, hautaketa-irizpideak aplikatu ondoren.



5.2. Ikasleen banaketa lurraldearen arabera


Adimen-gaitasun handiarekin diagnostikatutako ikasleen ehunekorik handiena Bizkaikoa da, eta txikiena, berriz, Arabakoa.



Nolanahi ere, lurralde bakoitzean eskolatutako ikasleak kontuan hartuta ikus daitekeenez, diagnostikatutako ikasleen ehunekoa oso txikia da hiru lurraldeetan. Nolanahi ere, ehunekorik handiena Arabakoa da (% 0,28). Araban diagnostikatutako 100 ikasleko 86 diagnostikatzen dira Gipuzkoan, eta 68 Bizkaian.

5.3. Ikasleen banaketa hezkuntza-sarearen arabera

Itunpeko sarean, diagnostikatutako adimen-gaitasun handiko ikasleak sare publikoan baino % 15,2 gehiago dira.




Hezkuntza-sare bakoitzean eskolatutako ikasleak kontuan hartuta ikus daitekeenez, diagnostikatutako ikasleen ehunekoa oso txikia da bi hezkuntza-sareetan. Nolanahi ere, ehunekorik handiena itunpeko sarekoa da (% 0,25). Itunpeko sarean diagnostikatutako 100 ikasleko 80 diagnostikatzen dira sare publikoan.

5.4. Ikasleen banaketa ereduaren arabera

Ereduaren araberrako azterketa egiteko, ez dira kontuan hartu adimen-gaitasun handiarekin diagnostikatutako ikasle bat duten atzerriko ikastetxeetan eskolatutako ikasleak. Ikastetxe horiek 2.243 ikasle eskolatzen dituzte guztira.

EAEen adimen-gaitasun handiko diagnostikoa duten ikasleen ia % 71 D eredukoak dira, eta A eredukoak ez dira % 6,7ra iristen.




Hizkuntza-eredu bakoitzean eskolatutako ikasleak kontuan hartuta ikus daitekeenez, diagnostikatutako ikasleen ehunekoa oso txikia da hiru ereduetan. Nolanahi ere, ehunekorik handiena B ereduko da (% 0,25). B ereduan diagnostikatutako 100 ikasleko 84 diagnostikatzen dira D ereduan, eta 80 A ereduan.

5.5. Ikasleen banaketa hezkuntza-etaparen arabera

Etapen araberrako azterketan, Haur Hezkuntzan (HH3, HH4 eta HH5), Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan eskolatutako ikasleak baino ez dira kontuan hartuko (304.630 ikasle).

Ondorengo grafikoan ikus daitekeenez, eskolatutako ikasle guztiak kontuan hartuta, ikasleen ehunekorik handiena biltzen duen etapa Lehen Hezkuntza izan da (% 43), eta ehunekorik txikiena biltzen duena, berriz, Batxilergoa (% 10).

5.5.a. grafikoa: EAEn eskolatutako ikasleen kopurua eta ehunekoa, etaparen arabera.




Ondorengo grafikoan, adimen-gaitasun handiari lotutako diagnostikoren batekin (heltze goiztiarra, talentua edo supergaitasuna) identifikatutako EAEko ikasleek etapa bakoitzean duten ehunekoa agertzen da.


Aztertutako etapetan, Berritzeguneetako aholkulariek identifikatutako adimen-gaitasun handiko 660 ikasle daude EAEn guztira. Kolektibo hori aztertutako etapa guztietan eskolatutako ikasle guztien % 0,2 da.

Etapa bakoitzean eskolatutako ikasleak kontuan hartuta ikus daitekeenez, diagnostikatutako ikasleen ehunekoa oso txikia da guztietan. Nolanahi ere, ehunekorik handiena DBHkoa da (% 0,30). DBHn diagnostikatutako 100 ikasleko 6 daude diagnostikatuta Haur Hezkuntzan, 66 Batxilergoan eta 84 Lehen Hezkuntzan.

5.5.b. grafikoa: Adimen-gaitasun handiko ikasleen kopurua eta ehunekoa, etaparen arabera.



Ondorengo grafikoetan, heltze goiztiarra, talentua edo supergaitasuna duten ikasleek etapa bakoitzean duten kopurua eta kolektibo horietako bakoitzak etapa bakoitzean duen ehunekoa agertzen dira.



Adimen-gaitasun handiko ikasleen ia 58 supergaitasuna duten ikasleak dira. Gainera, adimen-gaitasun handia duten ikasleen ehunetik handiena supergaitasuna duten ikasleena da Lehen Hezkuntzan, DBHn zein Batxilergoan.

Heltze goiztiarreko ikasleak, berriz, EAEn ofizialki diagnostikatutako ikasle guztien % 5 baino ez dira. Haur Hezkuntzan, heltze goiztiarreko 10 ikasle daude diagnostikatu, hau da, etapa horretan diagnostikatutako ikasleen % 100. Lehen Hezkuntzan, berriz, 22 ikasle dute diagnostiko hori, eta etapa horretan egindako diagnostikoen % 6,6 dira.


Adimen-gaitasun handiko ikasleen artean, talentua dutenak % 38,3 inguru dira Lehen Hezkuntzan (127 ikasle), % 37,7 DBHn (97 ikasle) eta % 36,1 Batxilergoan (22 ikasle).

5.6. Ikasleen banaketa mailaren arabera

Mailei dagokienez, EAEko diagnostikoen ehunetik handiena Lehen Hezkuntzako 5. mailatik DBHko 2. mailara bitarte biltzen da (% 11,5etik % 13,2ra bitarte). Diagnostikoen ehunetik txikiena, berriz, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko hiru mailatan agertzen da (3 urtekoen Lehen Hezkuntza, 4 urtekoen Lehen Hezkuntza eta 5 urtekoen Lehen Hezkuntza).


Ondorengo grafikoan ikus daitekeenez, diagnostikatutako kasuen ehunekoak gora egiten du Haur Hezkuntzako bigarren zikloko hiru mailatan, eta gora egiten jarraitzen du bi puntu gorenera iritsi arte (bat Lehen Hezkuntzako 3. mailan –% 8,9– eta bestea DBHko I. mailan –diagnostikatutako kasuen % 13,2–). Maila horretatik aurrera, diagnostikoen ehunekoak behera egiten hasten da, Batxilergoko 2. mailako % 4,4ra iritsi arte (Lehen Hezkuntzako I. mailakoaren eta 2. mailakoaren artean kokatutako ehunekoak).

5.6.a. grafikoa: Adimen-gaitasun handiko ikasleen kopurua eta ehunekoa, mailaren arabera.



Maila bakoitzean eskolatutako ikasleak kontuan hartuta ikus daitekeenez, diagnostikatutako ikasleen ehunekoa oso txikia da guztietan. Nolanahi ere, ehunekorik handiena DBHkoa da (% 0,39). Hala ere, aldeak daude mailen artean. Adibidez, DBHko I. mailan diagnostikatutako 100 ikasleko 4 diagnostikatu dira 4 urteko Haur Hezkuntzan, 27 Lehen Hezkuntzako I. mailan eta 56 DBHko 4. mailan.

5.6.b. grafikoa: Adimen-gaitasun handiko ikasleen kopurua eta ehunekoa, mailaren arabera.



5.7. Ikasleen banaketa ISEKaren arabera

Indize sozioekonomiko eta kulturala (ISEK) ikasleen testuinguruari buruzko galde-sortan bildutako erantzunetan oinarrituta lortzen da. Banakako datuetan oinarrituta, ikastetxe bakoitzeko ikasleen batezbestekoa kalkulatu da. Balio horrek 0 du oinarri (Autonomia Erkidegoko batezbestekoa), I eko desbiderapen tipikoarekin.

Konparazio-azterketa ahalbidetzeko, lau maila ezarri dira ISEKaren barruan (baxua, ertain-baxua, ertain-altua eta altua), eta horietako bakoitzean ikasleen % 25 daude.


Ondoren, ikastetxeko ISEKa emango dugu. Hori kalkulatzeko, ED17an ikastetxeei buruz jasotako datuak erabili dira, eta, beraz, 2017an Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan eskolatuta zeuden ikastetxeei buruzko datuak baino ez ditugu. 660 ikasleetatik, adimen-gaitasun handia diagnostikatuta duten 620 ikasleren ikastetxeko ISEKa identifikatu ahal izan da.

2017ko ISEKen balio-tarteak honako hauek izan ziren:

ED17-LHko 4. maila. ISEKen balio-tartea. Ikastetxeak			
ISEK maila	Gutxieneko balioa	Gehieneko balioa	Batez besteko balioa
Baxua	-2,57	-0,41	-0,78
Ertain-baxua	-0,41	-0,07	-0,20
Ertain-altua	-0,07	0,24	0,06
Altua	0,24	1,39	0,53
ED17-DBHko 2. maila. ISEKen balio-tartea. Ikastetxeak			
ISEK maila	Gutxieneko balioa	Gehieneko balioa	Batez besteko balioa
Baxua	-2,36	-0,32	-0,70
Ertain-baxua	-0,32	-0,08	-0,18
Ertain-altua	-0,08	0,22	0,06
Altua	0,23	1,13	0,55

Ondorengo grafikoan, eskolatuta dauden ikastetxeko ISEKaren arabera adimen-gaitasun handia diagnostikatuta duten ikasleen ehunekoa agertzen da.

5.7.a. grafikoa: HPBetako aholkulariek diagnostikatutako adimen-gaitasun handiko ikasleen kopurua eta ehunekoa, ISEK mailaren arabera.




Adimen-gaitasun handia diagnostikatuta duten EAEko ikasleen ehunekorik handiena (% 37,4) Indize sozioekonomiko eta kultural (ISEK) altua duten ikastetxeetan eskolatuta dago, eta % 12,6, berriz, ISEK maila baxua duten ikastetxeetan (portzentajezko 24,8 puntuko aldea dago).

Adimen-gaitasun handia diagnostikatuta duten EAEko ikasleen % 66,1 ISEK ertain-altua eta altua duten ikastetxeetan eskolatuta daude.

5.8. Ikasleen banaketa sexuaren arabera

EAEko Berritzeguneek ofizialki diagnostikatutako ikasleen sexua kontuan hartuta¹, mutilak neskak baino gehiago dira (% 70,9 eta % 29,1, hurrenez hurren).

5.8.a. grafikoa: HPBetako aholkulariek diagnostikatutako adimen-gaitasun handiko ikasleen kopurua eta ehunekoa, sexuaren arabera.



5.9. Beste hezkuntza-etapa batzuetan diagnostikatutako eta eskolatutako ikasleak


5.1. atalean aipatu dugunez, Berritzeguneen HPBetako aholkulariek ofizialki identifikatutako adimen-gaitasun handiko 747 ikasle daude guztira EAEko hezkuntza-sisteman.

747 ikasle horietatik, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan eskolatutako ikasleak aztertu dira aldagai batzuen arabera, baina badaude 22 ikasle datu-basean adimen-gaitasun handiari lotutako diagnostikoekin agertzen direnak eta adierazitako etapetan ez daudenak. Ikasle horiek diagnostikatutako guztien % 2,9 dira.

22 ikasle horietatik, % 13,6k heltze goiztiarra dute diagnostikatuta, % 36,4k talentua, eta % 50ek supergaitasuna.


¹ Datu horiek 2018ko urriko datu-basetik hartuta daude, eta datu-base hori ez da txosten honetarako erabilitakoa (2019ko urtarrilekoa). Beraz, mutilen eta nesken ehunekoak data horretan ofizialki diagnostikatuta zeuden 711 ikasleekin kalkulatu dira.

5.9.a. grafikoa: HPBetako aholkulariek diagnostikatutako eta beste etapa batzuetan eskolatutako adimen-gaitasun handiko EAEko ikasleen kopurua.



22 ikasle horietatik, gehienak (% 81,8) Musika-Kontserbatorio profesionaletan eskolatuta daude, eta % 18,2, berriz, Lanbide-Heziketako ikastetxeetan.


5.9.b. grafikoa: Beste etapa batzuetan eskolatutako adimen-gaitasun handiko ikasleak, ikastetxearen eta diagnostikoaren arabera.



Ikasle horien diagnostikoak kontuan hartuta, kontserbatorioetan heltze goiztiarra duten 3 ikasle, talentua duten 7 ikasle eta supergaitasuna duten 8 ikasle daude eskolatuta, eta LHko ikastetxeetan, berriz, talentua duen ikasle 1 eta supergaitasuna duten 3 ikasle.

Ondorengo grafikoan ikus daitekeenez, ikasle horien ia % 77,3 (17 ikasle) Musika Ikasketen 1., 2., 3. eta 4. mailetakoak dira.

5.9.c. grafikoa: Beste etapa batzuetan eskolatutako adimen-gaitasun handiko ikasleak, mailaren arabera.



6. Ondorio orokorrak

6.1. Parte-hartzearen azterketa

Parte hartu duten ikastetxeen ehunekoa, galde-sortak betetzen oso handia izan da etapa guztietan (% 87,7tik % 90,8ra bitarte) eta bi sareetan. Zuzendariak laguntza eskatu dute batez ere aholkulari edo orientatzaileei eta Ikasketa Buruari.

6.2. Sailaren Orientabideak

Ikastetxe gehienek adierazi dute ezagutzen dutela Hezkuntza Sailak gaitasun handiko ikasleak detektatzeko edota haiekin esku hartzeko moduari buruz egindako *Orientabideen dokumentua*.

Orientabideei buruzko dokumentua ezagutzen duten Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien ehunekoa DBHko eta Batxilergoko zuzendariena baino handiagoa da (% 78,1 eta % 70,9, hurrenez hurren).

Orientazioak ezagutzen dituztela dioten itunpeko ikastetxek ehunekoa sare publikoko ikastetxeena baino handiagoa da.

Gipuzkoako etapa guztietako zuzendariak dira Hezkuntza Sailaren Orientabideak ezagutzen dituztela diotenen artean ehunekorik handiena dutenak. Ehunekorik txikiena dutenak, berriz, Arabakoak dira.

6.3. Detekzioa, identifikazioa eta diagnostikoa

Ikastetxeek gaitasun handiko ikasleak detektatzeko jardunbide sistematiko gisa balioko duen *protokolo* baten gabezia agerikoa da, Lehen Hezkuntzan eta DBHn bereziki (zuzendarien % 30ek baino ez dute adierazi protokolo hori badutela).

Haur Hezkuntzan izan ezik, protokoloa duten ikastetxeen ehunekoa handiagoa da itunpeko sarean publikoan baino.

Haur Hezkuntzako hamar zuzendaritzatik ia bederatzik tutoreari esleitzen diote ikasleen *detekzioaren ardura*. Gainerako etapetan berriz, ikastetxe gehienek uste dute ardura arloko irakasleena dela. Itunpeko sareko DBHko eta Batxilergoko zuzendariak adierazi dute bi profesionalek ardura dutela.

Ikastetxeek adierazten dute *detektatutako kasuak* eskolatutako ikasle guztien % 0,41 direla Haur Hezkuntzan, % 0,69 Batxilergoan, % 0,76 DBHn eta % 0,78 Lehen Hezkuntzan.

Itunpeko sareko ikastetxeek sare publikoek baino kasu gehiago detektatu dituzte, eta mutilen ehunekoa neskena baino handiagoa da. Sexuen arteko aldea portzentajezko 24,2 puntura iristen da Haur Hezkuntzan, 29,6ra Lehen Hezkuntzan, 25,2ra DBHn eta puntu batera Batxilergoan (mutilen alde).

Hezkuntza-tarte guztietan, ikastetxe gehienek adierazi dute Berritzeguneez egiten dituztela *diagnostikoak* (% 74-86,3k adierazi dute hori).

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien % 57k eta DBHko eta Batxilergoko zuzendarien % 48,5ek adierazi dute gaitasun handiko ikasleen detekzioarekiko eta identifikazioarekiko asebetetzearekin “nahiko” edo “oso” gustura sentitzen direla.

6.4. Esku-hartzea

EAEko Hezkuntza Sailak landutako “*Curriculumum aberastea*” dokumentua erabili dutela adierazi duten ikastetxeen ehunekoa ez da % 43ra iristen. Etapa Hezkuntza-tarte guztietan eta hiru lurraldeetan gertatzen da hori.

Itunpeko sareko zuzendariak sare publikoek baino neurri handiagoan adierazi dute “*Curriculumum aberastea*” dokumentua erabili dutela. Bestalde, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeek DBHko eta Batxilergokoek baino neurri handiagoan erabili dute dokumentua (portzentajezko 8,1 puntuko alde).

Ikastetxeen adierazpenetan eta esku-hartze inguruan, *hezkuntza neurri espezifikoak, curriculumum aberastea, aplikatu* zaizkien ikasleen ehunekoa oso txikia da. (ez da % 1era iristen). Ikastetxe batzuek adierazi dute ez dutela ikaslerik detektatu, eta horregatik ez dutela neurri espezifikorik hartu.

Oro har, errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleekiko esku-hartzearen ehunekoa handiagoa da itunpeko sarean publikoan baino. Bi sareen arteko alderik handienak DBHn eta Batxilergoan agertzen dira (portzentajezko 55,2 eta 56,4 puntu, hurrenez hurren, itunpeko sarearen alde).

Hiru Hezkuntza-tartetan, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHn *ikastetxeek detektatutakoetan baino kasu gehiagotan esku hartu da*. Horren arrazoia honako hau izan daiteke: ikastetxeei gaitasun handiko ikasleen detekzioari buruz galdetu zaie, baina esku-hartzeari lotutako gaietan errendimendu-maila aurreratua duten ikasleak ere kontuan hartzeko eskatu zaie. Batxilergoa da salbuespena, kasu honetan adierazten dute detekzio handiagoa dela esku-hartze baino: % 0,69 ikasle detektatuak eta % 0,48 ikasle esku-hartuta.

Ikasleen *sexuari* dagokionez, ikastetxeek neskekin mutilekin baino neurri txikiagoan esku hartu dute (+7,8 Haur Hezkuntzan eta +16,2 puntos porcentuales Lehen Hezkuntzan), baina DBHn eta Batxilergoan zifrak antzekoak dira.

Ikastetxeetako zuzendarien erdiek baino gehiagok adierazi dute beren programazio didaktikoetan ia *alderdi guztiak lantzen dituztela curriculumum aberasteko*. Nolanahi ere, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ehunekoak DBHkoak eta Batxilergokoak baino handiagoak izan dira, eta itunpeko sareak sare publikoak baino handiagoak, kontsultatutako alderdi gehienetan. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, alderdirik landuenak dira: autonomia ikaste-prozesuan, sozio-interakzioa eta lankidetzeta, ekimen pertsonala eta emozioak bideratzea; eta DBHn eta Batxilergoan: autonomia ikaste-prozesuan, ekimen pertsonala, teknologia digitala maneiatzea eta sormena.

Oro har, *curriculumum aberasteko jardueren* ehunekorik handiena egiten duten zuzendariak Arabakoak dira, beste bi lurraldeetako zuzendariekin alderatuta. Halaber, itunpeko sareko zuzendariak, oro har, sare publikoek baino jarduera gehiago egin dituztela adierazi dute. Programazio didaktikoetan gehien planteatzen direnak arloko sakontze-jarduerak direla adierazten dute. Eta gutxien planteatzen direnak: jarduera gehiago, aparteko lana; komunitatearekin lotutako jarduerak eta hainbat arlotako edukiak biltzen dituzten jarduerak. Ikaslearen bizipenekin eta interesekin zerikusia duten jardueretan dago etapen arteko alderik handiena, portzentajezko +20 puntuko Haur eta Lehen Hezkuntzaren alde.

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan zein DBHn eta Batxilergoan, ikastetxe gehienek Matematikaren *arloan aberasten dute curriculum*a (% 47,6k eta % 35,4k, hurrenez hurren). Aitzitik, etapa guztietan ehunekorik txikiena izan duten arloak arlo Artistikoa (% 11 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 4,6 DBHn eta Batxilergoan) eta Musika (% 6,1 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 5,7 DBHn eta Batxilergoan) izan dira.

Ikasle horiekin *esku hartzen dutenei dagokienez*, esku-hartzearen zatirik handiena tutoreek egiten dute Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan (kasuen % 88,1etan), eta DBHn eta Batxilergoan, berriz, arloko irakasleek (kasuen % 84,3tan). Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, ikastetxeen % 66,2k adierazi dute aholkulariek esku hartzen dutela ikasle horiekin, eta DBHko eta Batxilergoko ikastetxeen % 63k, berriz, orientatzaileak esku hartzen duela adierazi dute.

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, ikastetxeen erdiak baino gehiagok esan du errendimendu-maila aurreratuko ikasleen premiei erantzuteko *prozedura eta ekintza metodologikorik* erabilienak tutoretza pertsonalizatuak eta taldekoak direla, haien behar sozio-emozionalei erantzuteko eta Proiektu edo Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI), eta DBHn eta Batxilergoan, berriz, Ikastetxeen erdiak baino gehiagok adierazi dute txertatuta daudela ingurune digitalak: *classroom...* eta bigarrenik POI.

Ikastetxe gehienek erantzun dute errendimendu-maila aurreratua duten ikasleekiko lankidetzak bultzatzeko gainerako ikasleekin gehien egiten duten ekintza *lankidetzalana* sustatzea izan dela. Era berean, gutxien diotena da berdin arteko tutoretzak egitea eta maila desberdinetako ikasleen artean ekintzak bultzatzea (talde malguak). Azken kasu horretan DBHn eta Batxilergoan %40 da, eta Haur eta Lehen Hezkuntzan zuzendaritzen %52 da.

Zuzendarien % 70ek baino gehiagok erantzun dute ekintza gehienak egiten dituztela *ikasleek beren ikaskuntza-prozesuan aktiboki inplikatzeko*, eta, oro har, itunpeko sareko eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ehunekoak sare publikokoak eta DBHkoak eta Batxilergokoak baino handiagoak dira. Gehien egiten diren ekintzak hauek dira: lan autonomoa sustatzea, irakasleak gidatua; inklusio erraztea; eta pentsamenduak eta iritziak adierazteko konfiantza giroa sustatzea. Eta gutxien gauzatzen direna da curriculumetik kanpoko eskaintza sustatzea: gidarien bidezko programa, kultura aberastea, eskolaz kanpoko jarduerak (DBHn eta Batxilergoan% 37 eta Haur eta Lehen Hezkuntzan% 31), eta ikasleei laguntzea proposamenak egin ditzaten gai, proiektu edo ikerketetan (DBHn eta Batxilergoan ia% 68 eta Haur eta Lehen Hezkuntzan% 70).

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendariak (ia %61k) DBHkoek eta Batxilergoek (ia %49k) baino *asebetetze-maila* handiagoa agertu dute konpetentzia garapenean errendimendu-maila aurreratutako aukerak dituzten ikasleekiko *esku-hartzearekin*.

6.5. Ebaluazioa

Etap guztietan, errendimendu-maila aurreratuko ikasleak *ebaluatzeko prozesuetan* gehien kontuan hartu den alderdia arlo emozionala dela esaten dute. (% 83,1 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 70,4 DBHn eta Batxilergoan).

Ikastetxeen erdiek baino gehiagok erantzun dute ebaluazioan errendimendu-maila aurreratuko ikasleak beste hurrengo ziklo edo etapara igarotzeko prozesua zaintzen dutela (% 59,7k Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 56,8k DBHn eta Batxilergoan).

Ehunekorik txikiena honako alderdi hauetan ageri da: arlo desberdinen ebaluazioa gaitasun handiko ikasleak kontuan hartuta egokitzea (DBHn eta Batxilergoan % 22 eta Haur eta Lehen

Hezkuntzan% 31); landutako alderdietara egokitutako probak diseinatzea % 27 DBHn eta Batxilergoan eta % 30 inguruan Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan.

6.6. Prestakuntza

Oro har, aurreko ikasturtean gaitasun handiko ikasleei buruzko prestakuntzarik jaso ez dutela adierazi duten ikastetxeen ehunekoa prestakuntza hori jaso dutela adierazi duten ikastetxeena baino handiagoa da. Salbuespena itunpeko sareko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeena da. Haien % 52,4k adierazi dute prestakuntza motaren bat jaso dutela.

Eta guztietan, prestakuntzarik jaso ez dutela adierazi duten ikastetxeen ehunekoa handiagoa da sare publikoan (Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen % 79,3 eta DBHko eta Batxilergoko ikastetxe publikoen % 84,9).

Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeek erantzun dute Berritzeguneak direla prestakuntza-agerterik ohikoenak gaitasun handiko ikasleen gaian. Araban, ordea, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan parekatu egiten dira Berritzeguneek emandako prestakuntzari lotutako ehunekoa eta barruko formazioa edo auto-formakuntzari lotutako ehunekoa (%37,3), eta DBHn eta Batxilergoan barruko formazioa edo auto-formakuntzari lotutako ehunekoa Berritzeguneek emandako prestakuntzari lotutako ehunekoa baino handiagoa da (% 35,9 eta % 33,3, hurrenez hurren). Sareak kontuan hartuta, prestakuntzaren ehunekorik handiena Berritzeguneena da, baina aldeak daude bi sareen artean. Izan ere, ehuneko hori 8,5 puntu handiagoa da Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako itunpeko ikastetxeetan, eta 19,8 puntu handiagoa DBHko eta Batxilergoko itunpeko ikastetxeetan.

Gipuzkoa izan da elkarten eta beste erakunde batzuen prestakuntza gehien jaso duen lurraldea. Halaber, ikus daitekeenez, itunpeko sareko ikastetxeek sare publikoek baino neurri handiagoan jaso dute elkarten eta “beste erakunde batzuen” prestakuntza.

Lurralde eta etapa guztietako ikastetxeen % 75,5ek erantzun dute prestakuntza-premiak dituztela gaitasun handiko ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzunari lotutako esparru guztietan.

Hala ere, zuzendarien erdiek baino gehiagok uste dute ez dela lehentasunezkoa gaitasun handiko ikasleei buruzko prestakuntza (Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien % 65,6k eta DBHko eta Batxilergoko zuzendarien % 68,8k). Prestakuntza hori lehentasunezkozkat hartzen duten itunpeko sareko ikastetxeak % 40-45,3 dira, eta sare publikoak, berriz, ez dira % 28ra iristen ezein etapatan.

6.7. Aholkularitza eta lankidetzak

Zuzendaritzen erantzunak gaitasun handiko ikasleen beharrei erantzuteko lankidetzak-eskaerari buruz handienetik txikienera ordenatu da, honela: Berritzeguneen hezkuntza-premia berezietako aholkularitza, Berritzeguneen etapako aholkularitza, elkarteak eta beste batzuk (azken bi horiek alderantziz ordenatuta daude Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan).

Eta guztietan eta bi sareetan, ikastetxeen % 79,8tik %93ra laguntza eskatu diete Berritzeguneen hezkuntza-premia berezietako aholkulariei, eta % 46,5-59,7k laguntza-zerbitzu horien etapa-aholkulariei.

Eta guztietan, itunpeko sarean sare publikoan baino neurri handiagoan eskatu zaie laguntza elkartei eta “beste batzuei”.

6.8. Gaitasun handiko ikasleen familiak

Ikastetxe gehienek erantzun dute orientazio-ekintzak egiten dituztela gaitasun handiko ikasleen familiekin. Nolanahi ere, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeek DBHkoek eta Batxilergokoek baino neurri handiagoan egiten dituzte ekintza horiek (% 70,9k eta %65,2k, hurrenez hurren). Erantzunen ehunekoaren arabera, bigarren ekintza eskarien bilketa bultzatzea izan da (% 61,3tik % 63,6ra bitarte).

Arabara, Haur eta Lehen Hezkuntzako eta DBHko eta Batxilergoko familiekin gehien sustatzen dela dioten ekintza honako hau da: familiak orientatzea eta familien eskarien bilketa erraztea, hurrenez hurren. Bizkaian eta Gipuzkoan gehien sustatzen den ekintza honako hau da: familiak orientatzea hezkuntza-etapa desberdinetan.

Bildutako datuen arabera, familiekiko ekintzen ehuneko handiagoa sustatzen da itunpeko sarean publikoan baino, eta aldea ehuneko 31,7 puntukoa da kasuren batean.

Familien ezaugarri dagokionez, etapa guztietako zuzendarien % 39,2-49,6k adierazi dute familiek orientabideak, hezkuntza-erantzuna eta esku-hartzeari buruzko informazioa eskatzen dutela eta ikastetxean konfiantza dutela.

Ikastetxeetako zuzendariak gaitasun handiko ikasleen familien ezaugarriak buruz duten ikuspuntuari dagokionez, alde handiak daude lurraldeen artean.

6.9. Ikastetxeen sentikortasuna errendimendu-maila aurreratuko eta gaitasun handiko ikasleei emandako erantzunaren aurrean

Ikastetxeen erdiek baino gehiagok lehentasun nahiko edo handia ematen diote errendimendu-maila aurreratua eta gaitasun handiak dituzten ikasleen arretari, eta , gainera, jakiten dute ikasle horiek zer motibazio-maila duten arlo/ikasgai desberdinetan ikasteko.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zuzendarien % 55,6k eta DBHko eta Batxilergoko zuzendarien % 50,4k adierazi dute ikasle horien asebetetze-mailari buruzko ezagutza “nahikoa” eta “asko” dutela.

Etap guztietako zuzendari gehienek (% 82,0 inguruk) pentsatzen dute ikasle horiekiko ekintzak hobetu litezkeela Aniztasunaren Arretarako Planaren (gaitasun handiak) bidez.

6.10. EAEn diagnostikatutako gaitasun handiko ikasleen analisia

Hezkuntza-sisteman, adimen-gaitasun handiko 747 ikasle daude Berritzeguneetako hezkuntza-premia berezietako aholkulariek ofizialki identifikatuta.

Txosten honetan aztertuko diren adimen-gaitasun handiko 660 ikasleetatik, % 4,8 heltze goiztiarreko ikasleak dira, % 37,3 talentu motaren bat dutenak, eta erdiak baino gehiago (ia % 58) supergaitasuna dutenak.

Diagnostikatutako ikasleen ehunekoa oso txikia da (ikasleen % 0,22 inguru).

Diagnostikoari dagokionez, aldeak daude lurraldearen, hezkuntza-sarearen, hizkuntza-ereduaren eta etaparen arabera.

Adimen-gaitasun handiko diagnostikoa duten ikasleen ehunekorik handiena (% 37,4) ISEK altua duten ikastetxeetan eskolatuta daudenena da.

Diagnostikatutako mutilak neskak baino gehiago dira (% 70,9 eta % 21,9, hurrenez hurren).

Adimen-gaitasun handiarekin diagnostikatutako 22 ikasle Musika-Kontserbatorioetan eta Lanbide Heziketa-Zikloetan eskolatuta daude. Ikasle horiek EAEn diagnostikatutako guztien % 2,9 dira. 22 ikasle horietatik, % 13,6k heltze goiztiarra dute diagnostikatuta, % 36,4k talentua, eta % 50ek supergaitasuna.